

uk

82. zenbakia / 2005 ekainak 5



Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Urdulizko gaztetxea. Asier Mentxaka.
- 6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. PSE-EE. Photoshop.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako etorbidea, 1960-2005.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 9. ERRETRATUA. Unai Zoco, A. M.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- 23. AGENDA.

SAKONEAN

- 24. ALBUMA. Getxoarte 05, Asier Mentxaka.
- 26. ERREPORTAJEA. Hondartzen denboraldia hasi da, Unai Brea.
- 28. ARGAZKIA. Mojak Gorrondaxen, Fatima Diez Garaigorta.
- 30. BERBETAN. Eneko Acero, U. B.
- 34. FOTOGRAFIA. Txaro Gutiezen argazkiak.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Erandioko film laburren lehiaketa.
- 43. MUSIKA. Getxo Blues. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Elkar argitaletxearen biografiak. Liburuaren erreseinak.
- 45. KIROLA. Getxo Saskibaloi Taldea.

EUSKARAZ

- 46. ELKARRIZKETA. Ana Lara, Unai Brea.
- 47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Non jan? Erromoko La Marmita jatetxea.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Leioako Artatza-Pinueta ikastetxea, 1981.
- 54. AITORMENAK. Francis Diez, Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Carlos Terreros



30 Eneko Acero

Berbetan

Europako txapelkun eta Munduko Txapelketako bost probatan garaile. Eskualdeak eman duen surflari onenarekin egon gara.



24 Getxoarte 05



34 Txaro Gutiezen argazkiak



46 Ana Lara



54 Francis Diez



14 Leioako Fath elkarte



Udan ere euskarari heldu!

euskara

Udako ikastaro trinkoak
(5 ordukoak)

Cursos intensivos de verano

Ven y ap ntate!!!

e-mail: j.a.agirre@euskalnet.net



Algortako Etorbidea 104 zbk
48990 Algorta - GETXO
Tlf: 94 460 66 71

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Arriaga

FOTOGRAFIA: Asier Mentzaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Bittor Egurota, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Esti Ezkerra, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF


LEGE GORDAILUA: BI-1878-00


ISSN: 1576-6799

Osonk edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

 Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

 TOPAGUNEA

Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta

 Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Getxo
UDALA

 Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

Leioako Udala

 Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du

BERANGOKO UDALA

 Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

Erandioko Udala

 Aldizkari honek Erandiko Berbots Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du

 Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

 Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

EROSKI FUNDAZIOA

 **uk** aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

gugeu

Gonbidapena

Esku artean darabilzun aldizkari hau egiten gabiltzanok batzen gaituen *negozio txarretarako* berezko joera naturala daukagu. Jeneralean, kultura deitzen den horrekin lotura zuzena izaten dute negozio hauek. Irabaziak baino, galera ekonomikoak eragiten dituzte, baina aldi berean azaltzen ezinezkoa den ongizate modukoa sentitzen dugu ariketa hauek egiten ditugunean. Dagoeneko era honetako negozio batzuk eginak ditugu. Esaterako, eta akaso irakurle batzuk gogoan edukiko duzue, orain dela urte batzuk Bittor Egurota kantari eta lankidearen galduak ziren bere kanta guztiak batu genituen CD batean. 180 graduko buelta eman genuen gero -horrelakoak gara- eta eskualdeko DJen kanta elektronikoekin bigarren disko bat argitaratu genuen. Eta iaz, makina bat argazkilariren lanekin erakusketa antolatu genuen.

Aurten, Carlos Terrerosen argazkiak ikusi eta ezagutzeko zortea eduki dugu. Eta segituan zeozer egin behar genuela sentitu dugu, zalantza barik eta merezi zuelakoan jendeak lan horiek ikusteko eta gozatzeko bitartekoak lortu behar genituen. Labur esanda, gure beste negozio horietako bat egiteko tentazioari ezin izan diogu eutsi. Bazterrak astindu, hamaika ate jo eta akabuan Carlosen argazkiekin erakusketa egiteko sosak aurkitu ditugu.

Baina nor da Carlos Terreros? Carlos argazkilarik bikaina da. UK-n suerte handia daukagu bera bezalako artista bat gurekin lan egiteko prest azaldu izanarekin. Gaur egun gaia baztertu badu ere, urte askoan Carlos skateboardingaren erretratugilerik onena izan da bai Euskal Herrian, bai Estatuan. Algortarra da eta eskualde honetan kirol hau inork ez bezala jaso du herriaren memorian iltzaturik lotuko diren bere argazki paregabeetan.

Antolatu dugun erakusketa hau Algortako Satistegi kafean dago dagoeneko (gero Uribe Kostako gainerako herrietara eroango dugu). Ohi ez bezala, iritziak plazaratzeko erabiltzen dugun *Gu geu* leihotxo honetatik, eta merezi duelako, zuri hara osteratxoa egiteko gonbidapena luzatu nahi dizugu. 4

UK-ko lantaldea

gutunak

Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat.

Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxe: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Goizero irakurri > **berria**



Gaztetxea ikusmiran / Denbora luzez Mecanica La Peñaren aurretik pasatzen ginenean langileen borroka, enpresa txiki eta ertainen gainbehera, eraikin ahaztuak, hutsak, antzuak... zetozkigun gogora. Era berean berriro ere emankor bihur zitezkeela, izan ziren oparotasun iturri modura, bestelako aberastasun emari ere izan zitezkeela irudikatzen zuen geure buruak. Denbora luzez jabeen eta arduradunen interesa eduki ez duen eta berririk sortu ez duen eraikina itxaropen kolorez margoitu zuten orain dela ez asko gazteek, ugalkor bihurtuz. Horrek bat-batean jabeen eta arduradunen interesa iratzarri ei du, eta berde koloreko ahaleginak geldiarazi ditu. Denbora laburra iraun du esperantzak. “*Esperantzan bizi gara desesperaturik*” dio kantak, eta Igeltsera gaztetxeko horretako batean hau leitzen da gaztelaraz: “*Geure etxeak husteru behartu gaitzakezue, baina gure ideiak uztera ez*”. m / Argazkia: **Asier Mentzaka**

Leihatila

> Macci Albizu

Emakumeekin zeruertzera ino ibili

Emakumeen mundu martxa Euskal Herrian da jadanik. Martxoaren 8an San Paolo hiritik abiatu zen eta gurean dugu. Desberdintasun sozial, ekonomiko nahiz politikoa ezaugarri nagusi duen munduan emakume eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzeak badu kutsu utopikorik. Ez txarto hartu, ordea, gai honetaz hitz egitean “utopia” hitza erabiltzea, ez. Eduardo Galeano idazle uruguaitarrak dioenez, utopia “zeruertz” bezalakoa da, harantz bi urrats eman eta zeruertzak bi urrats atzera egiten du, guk beste bi eman aurrerantz eta hark beste horrenbeste atzerantz... Kontxo!!, zeruertzarekin gertatzen den moduan, inoiz utopiaraino iritsi behar ez badut zertarako balio ote du orduan utopiak? Horretarako ba!! Ibiltzeko. Ibil zaitezte zuek ere emakume mundu martxarekin batera. 4

IRITZIA

Zer behar da herri honek bakea lortzeko? Galdera hau luzatzen ari gaitzaikio eskualdeko hainbat laguni. Oraingoan Luis Almansa PSE-EEko kidearen txanda da.

Zer behar da herri honek bakea lortzeko?

Gure herrian bakea lortzeko alde aurreko baldintza ezinbestekoa hiritar guztiok askatasunean eta baldintza berdinekin gure aldarrikapen edo proiektu politikoak azaldu ahal izatea da, eta hau gaur egun ez da posible ETaren terrorismoagatik.

Horregatik, *zer behar da herri honek bakea lortzeko?* galderaren aurrean erantzuna erraza da. Terroristek hiltzeari utz diezaiotela, armak eman ditzatela, biktimei barkamena eskatu eta disolba daitezela.

Estatu demokratiko batean bere gabezi eta akats guztiakin terrorismoa, helburu politikoak lortzeko indarkeria, erabiltzeak ez dauka inongo justifikaziorik, terrorismoa da hori, faxismo hutsa.

Horregatik terrorismoaren erradikazioa ezin da aldarrikapen politiko abertzale edo beste era batekoen asetzearen menpe egon.

Terrorismoari “gatazka politiko”aren kutsua ematen tematzen direnak, helburu

politikoak lortzeko asmoarekin egiten dute hori, nahiz eta hau beldurra eta etsai politikoaren hilketa erabiliz egin. Gainera, joko demokratikoan nekez lortuko zituzten helburu politiko horiek.

Bakea lortzeko benetako kopromisoak proposamen bateratuak eskatzen ditu. Proposamen hauek hurbilketa, elkartzea eta alderdi demokratikoen arteko kolaborazioa erraztu behar dute, terrorismoa inongo prezio

«Helburu politikoak lortzeko indarkeria erabiltzeak ez dauka inongo justifikaziorik»

politikorik ordaindu gabe akabatu ahal izateko. Orain dela gutxi Nazioaren Egoerari buruzko egindako debatean Estatuko Kongresuaren erresoluzioak zera dio: *“Politika indarkeriaren bukaeran lagundu ahal eta behar duela jabeturik, atzera berresten dugu baldintza egokiak ematen badira indarkeriaren bukaera dialogatua sostengatzen dugula. Baldintza hauek indarkeria baztertzeko borondate argi batean eta zalantzagabeko jarreretan oinarritu behar dira. Egoera hau ematen bada Estatuaren botere eskudunen eta indarkeria baztertu nahi dutenen arteko elkarrizketak sostengatzen ditugu. Betiere anazo politikoak herriaren borondatearen ordezkari legitimoen bitartez konpondu behar direla dioen printzipio demokratiko utziezina errespetaturik”.*

Sozialistontzat hau herri honetan bakea lortzeko bidea izan daiteke. 4

Luis Almansa
(PSE-EEko bozeramalea Getxoko Udaletxean)

* Erredakzioan itzulia



Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO ETORBIDEA 1960-2005

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > surfa eta baleak Galean



[talaia]

erakusketa > eskualdeko skaterrak UKren eskutik

Iaz hasitako biderei jarraiki, bigarren erakusketa fotografikoa antolatu dugu UK-kook. Oraingoan Carlos Terrerosek skaterrei Uribe Kostan ateratako argazkiak bildu ditugu. Guztira tamaina handiko 18 argazki ikusgarrik osatzen dute erakusketa eta dagoeneko Algortako Satistegi kafean (Basagoiti 51) ikus daiteke. Ondoren, Sopelana, Berango, Urduliz, Gorliz, Plentzia eta Erandioko kultur etxeetan ikusi ahal izango da. Carlos Terreros getxoztarra Estatuko skate argazkilaririk onenetakoa da eta bere lanek makina bat aldizkaritan ikusi dute argia. Erakusketa hau egin ahal izateko Volcom, BBK eta Cianoplan erakundeen laguntza eduki dugu. ^m



Erakusketa osatzen duten argazkietako bi

natura > zer da hau?



Etengabeko autoen joan-etorriek sortzen duten burrunba Bolueko paduran sar ez dadin ipini zituzten goiko argazkian ikus ditzakezuen babes-hesiak. Gardenak dira baina arranoen siluetak itsatsi zizkieten txoriek han ezer badela ikusi eta euren kontra talka egin ez dezaten. Hala ere, txori batek baino gehiagok heriotza aurkitu du babes-hesi hauen kontra joz. Orain, adituak hesi hauen benetako eragina zelakoa den ikertzen dabiltzala jakin dugu. ^m

kale izendegia > Areetako Eduardo Coste



Areeta aldera joan gara oraingoan Eduardo Coste Vildosola jaunak kale bat merezi izateko zer egin zuen jakiteko. Merkataria eta industrialari hau Gasteizen jaio zen 1821ean. Naviera Vasco-Andaluzia izeneko enpresa sortu zuen, baina garai hartan Jose Maria Ybarra y Cía deitzen zen ontzi-enpresak xurgatu zuen 1881ean. Herri-lanetako presidente izateaz gain, sasoi batean, Euskalduna ontzioletako administrazio-kontseiluaren kide genuen; Ibaizabalgo ibaiertzean zegoen sona handiko enpresa bilbotar horretako akziodun nagusietako bat ere bazen. 1902ko irailaren 19an, Espainiako errege zen Alfontso XIII.ak Lamiakoko Markes titulua eman zion. Coste 92 urte zeuzkala hil zen Areetan, 1913ko irailaren 4an. ^m

Argazkian, Areetako Eduardo Coste kalea

[erretratu]



Aurtengo Getxoarterako, Unai "txakur emea" berbak gaztelaniaz daukan esangura guztiakaz jokatu gura izan du: dirua, prostituzioa eta animalia. Margolanek gain (bere txakurra Alai zazpi koadrotan agertzen da), txokolatzeko euroak, toskaz egindako hezurak eta takoidun zapatak erabili ditu ideia hori adierazteko.

Unai Zoco > margolaria

Orain dela pare bat aste egin den Getxoko Arte Sortu Berrien Aretoren 5. aldian parte hartu du Unai Zocok (Uccle, Belgika; 1980). Leioako campusean Arte Ederrak ikasten (eta ia amaitzen) dabilen margolari gazte hau bost urte daroaz Areetan bizitzen, Erronkarin hazi ostean. *"Aita margolaria dut afizioz, eta berak sartu zidan zaletasuna"*. Dagoeneko Bilbon, Gernikan eta Galdakaon erakutsi ditu bere margolanak, eta 2002an eta 2003an La Gran Vía de los Artistas ekimenerako aukeratu zuten. Unai urte bi segidan egon da Getxoarten: *"Biak ustekabeak izan dira: iaz, lehenengo aldia izan zelako; eta aurtun, antzeko proiektua aurkezten nuenaz, ez nuelako espero berriro aukeratua izatea"*. Izan ere, bietan txakurrak izan dira bere margoen ardatza (*Una vida de perros* eta *Amores perros* izenburuakaz, hurrenez hurren): *"Txiripaz hasi zen ideia; landu eta garatu ostean ikusi nuen joko handia eman zezakeela. Proiektu hau lantzen jarraitu gura dut"*. Unai ez da ausartzen bere estiloa definitzen, *"oraindik gaztea naiz edukitzeko, apurka-apurka joan gura dut, beharrez jarraitu eta argi eduki zein bide hartu"*. ^m Argazkia: **Asier Menbaca** / Testua: **Jon Urresti**

Udalaren gaineko iritzia

Bizi-kalitatea hobetzen doala eta **udalerrria segurua** dela uste dute itaundutakoek; hala ere, **ahuleziatzat aparkaleku falta, etxebizitza eta gazteentzako ekimenak** aipatu dituzte

Joan den urteko azaroan, Udalaren gainean herritarren iritzia jakiteko, Getxoko Udalak enpresa espezializatu bati inkesta bat egitea eskatu zion. Oraintsu eman dute galdeketaren berri udal arduradunek. 18 urtetik gorako 350 lagunek erantzun zuten galde-sorta telefonoz, eta itaunketa gauzatu duen enpresak adierazi duenez emaitzek %95,5eko konfiantza maila daukate.

Inkestaren emaitzak kuantitatiboak direla kontuan hartu behar dela ohartarazi du Presidentziako zinegotzi Imanol Landak, eta galderak itxiak eta irekiak izan direla.

Itaunketa erantzun zutenen %87k (iaz baino %5 gehiago) urtez urte herritarren bizi-kalitatea hobetzen doala uste dute. "Euretako askoren iritziz Bilbo Handiko beste edozein udalerritan baino hobeto bizi dira Getxon", gaineratu du Landak. Gustura ez dauden kopuruak ere behera egin du %0,8 izan dira (%2,8 2003an). Horrez gainera, Getxori udalerrri nahiko edo oso segurua deritze galdetutako %78k, "Bilbon egindako beste inkesta batez alderatuz emaitza ona da, han %65k zeukaten hiria segurutzat", dio Landak.

Udalaren kudeaketa onaren hiru adibide jartzeko eskatuta itaundutako gehienek hurrengo aldeak goraipatu zituzten: paseoak, gune berdeak eta parkeak; oinezkoentzako konpondutako bide eta lekukak; kultur eskaintza; garbiketa eta herri-segurutasuna.



Oinezkoentzako konpondutako bideak goraipatu dituzte herritarrek

Udal kudeaketaren ahuleziak

Kudeaketaren ahulezien artean aparkaleku falta, gazteentzako ekimen gutxi eta etxebizitza lortzeko oztopoak daude. Aparkatzeko arazoa itaundutako %13k aipatu dute; hala ere, kontuan hartu behar da garai hartan Mesedeetako eta Santa Eugeniako aparkalekuak oraindik

«Gazteentzako ekimenak ugaritu behar direla uste dutenen kopurua gora»

amaitu barik zeudela. Gazteentzako ekimen gutxi antolatzen direla uste dutenen kopuruak gora egin du pasadan urtetik hona: 2003an %5,9 izan ziren eta 2004an %9,1. Etxebizitza lortzeko auzia, Udalaren kudeaketaren ahuleziatzat zeukaten 2003an %21ek, osterora orain galde-tutakoek %8,6k bakarrik uste dute hori.

Udalaren irudiaren inguruan, (zerbitzuen erabiltzaile izan edo ez) jasotako arreta eta tramiteak egiteko erraztasuna goraipatu dute galdetutakoek, eta egitasmoak gauzatzeko epeak ez betetzea gaitzetsi. m

Datu batzuk

- 350 getxoztarri pasadan azaroan telefonoz egindako inkesta.
- %87k bizi-kalitatea ona dela uste dute.
- %78k udalerrri segurutzat daukate Getxo.
- Udal kudeaketaren ahulezia nagusiak: aparkalekua, gazteentzako ekimenen urritasuna eta etxebizitza lortzeko aukerak.
- Udalaren kanpo irudia: arreta ona eskaintzen du eta tramiteak egiteko erraztasuna; alabaina, egitasmoak gauzatzeko epeak ez ei ditu betetzen.

Getxo Linguae arrakastatsua

Hizkuntzak landu, kulturak elkartu lelopean egin zen



Jardunaldien nondik norakoen berri www.getxolinguae.net orrian irakur daiteke

Getxoko Berritzeguneak, prestakuntzan eta hezkuntzaren berrikuntzan laguntzeko zentroak V. Getxo Linguae jardunaldiak antolatu zituen Igeretxe Hotelean. Hezkuntza alorrean diharduten 300 lagunetik gora parte hartu zuten "Hizkuntzak landu, kulturak elkartu" lelopean egin ziren jardunaldiotan. Berritzeguneko Hizkuntza Normalkuntzarako teknikari Pilar Ikazuriagak azaldu digun legez, "aurtengo jardunaldien helburua beste esperientzia batzuk ezagutzera eta trukatzera zen, eta etorkinen gaiarekiko jendea kontzientziatzea: etorkinak aberastasun iturri direla

azalduz, eta ez arazo bat". Horrez gain, beste helburu hauek ere bazeuzkan Getxo Linguae: eskolan eleaniztasunak eta kultur aniztasunak daukan eraginaz hausnartzea; integrazioa eta kulturen arteko hurbiltzea sustatzen duen esperientzien berri ematea; eta prespektiba ezberdinak ezagutzera, gero eta eleanitzagoa den gizartearen ikuspegi zabalagoa izateko. Euskal Herriko eta Kataluniako adituek eta eskoletan parte hartu zuten bertan, hala nola: Jesus Tuson, Virginia Unamuno, Belen Uranga, Omer Oke, eta Mungia eta Zurbanan ikastetxeak. m

GUTUNONTZI BEREZIA IPINI DUTE LAÑOMENDIN ITXAS-ARGIAKOEK

Paella Egunak urrezko ezteiak betetzen dituela eta Itxas-Argiako mendi taldekoek postontzi berezia jarri dute Lañomendi mendian (Loiu, 252m). Izan ere, mendi hori izan zen mendi taldekoek igotako lehenengoa, 1959an. Ez da Itxas-Argiakoek beste mendi batzuetan ipintzen duten gutunontzien modukoa (Aixerrotako irudia), Lañomendiko paella-ontzi bat da eta barruan txistulari baten eta Aixerrotako irudia dauzka.

Paella egunaren 50. urteurrena dela eta ipini dute postontzia Loiuako mendian



GIZARTE EKINTZAKO TALDEEI 145.800 EURO

Udaleko Gizarte Zerbitzuagaz kolaboratzen duten 11 elkartegaz zeuzkan hitzarmenak bersinatu ditu Getxoko Udalak, eta horretarako 145.800 euro bideratu ditu. Zenbateko hori elkarte mota horiei zuzenduta dagoen aurrekontuaren %53 da eta iazkoagaz alderatuz %6,5 egin du gora. Bestalde 40 elkarteri bideratutako laguntzak ere jakinaraziko ditu udalak.


RENAULT ocasión

IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

"0 Km" dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan



RENAULT
BILBO BERRI
Bizkerre/k, z/g - ALGORTA
Tel.: 94 430 68 81
Jon Arróspide, 20 - DEUSTO
Tel.: 94 448 39 00

Gure errekak

ezagutu eta hobeto defendatzeko ibilaldia

Getxo Bizia plataformak "Gobela eta Kandelu oinez" osteratxo antolatu zuen maiatza erdialdean. Erromoko Xake enparantzatik irten ziren, Mimenaga ingurua pasa eta Kandelu errekan gora eginez Iturbururaino heldu ziren, handik Getxoko probalekurantz jo zuten eta bertan San Isidroetako jaigiroan murgildu ziren parte hartu zuten 30 bat lagunak. Antolatzaileek azaldu legez, osteraren helburua hurrengo azalaraztea zen: "Botere ekonomikoek eta instituzioek darabilten neurri gabeko urbanizatzeko politikak (HAPO, LPP, Uribe Kostako korridoreko lanak) eragin ukaezinak ditu Getxon eta Uribe Kostan; Erreka eta ibai arroak itxuraldatuak, desbideratuak edota guztiz estaliak izaten ari dira, gure ibaien egoera ezagutu eta hobeto defendatu ahal izateko egin dugu ibilaldia". m

Kandelu, erreka?



2004AN ARRATOIEN KOPURUA 9.000 BURUTAN MURRIZTU ZEN

Getxo udalerrian gaur egun 57.376 arratoi bizi direla azaltzen du animalio akabatze zerbitzuaz arduratu den enpresak egindako azterlanak, 2 biztanleko arratoi 1 dago gutxi gorabehera. Azterketak 2003an baino 9.000 gutxiago daudela ondorioztatzen du. Arratoi kopuruaren beherakada handiena Erromo eta Areetan eman da, txikiena Andra Marin. Iazko azaroan eta martxoan animalio akabatze programak egin ziren. Egiteko hori eta 24 orduko zerbitzua emateko 2 urteko kontratua sinatu du Udalak enpresa batek 24.000 eurotan.

Getxoko Filatelia Elkartea

Zigilu-markatzekoa Paella Egunaren omenez



Zapatu goizetan Algortako kultur etxean batzen diren Filatelia Elkarteko kideetako batzuk

Aurten 25 urte betetzen dira Getxoko Filatelia Elkartea sortu zenetik eta 22 urte daroaz filatelia erakusketak antolatu. Urtero Getxogaz lotura daukan zigilu-markatzeko bat sortzen dute eta aurtengoa Paella Egunaren gainekoa da. Villamonten paratuko dute erakusketak ekainaren 6tik 11ra. Elkarteko kide Josu Cuestagaz egon gara berrikerian.

—Paella Egunari omenaldia egingo diotue aurten, ezta?

—Erakusketak eta lehiaketak da aldi berean, kanpoko adituak ere badatoz, eta 15-20 bilduma desberdin daude ikusgai: gaztelu, tren, heraldika, itsasontziak, irratia, hegazkinak, ardaoa, Euroa, edota Errusia eta Kubaren gainekoak. Hamaika kolore, garai eta lekutako posta-seilu, zigilu, txanpon eta billeteak erakutsiko dira. Urteroko zigilu-markatzekoa aurten Paella Eguneko 50. urteurrenari eskainiko diogu. Beti Getxogaz lotura daukan gaur bat aukeratzen dugu zigilu-markatzekoa egiteko, eta bizpahiru eguneko balioa edukitzen du. Gura duenak erakusketak irauten bitartean zigilu-markatzeko hori bertan izango du erabilgarri. Aurreko urteetako markatzekoak hurrengo gaien ingurukoak izan dira: Udaletxea (1985), "Titan" garabia, Jazzaldia (1988), Juvenia (1989, oso garrantzitsua), Punta Galeako fortea (1990), Amerika eta

Euskaldunak (1992), Metroa (1996), Boleueko padura (1999), Biotz Alairi omenaldia (2003), etab. Ez pentsa erakusketak eremu lokalean bakarrik dela ezaguna, aldizkari berezituaren bitartez Europa osoan ematen dugu bere berri. Bestalde, filateliaren gaineko bibliografia nahiko osatua dauka elkarteak Kultur Etxean: txanpon, billete eta zigiluen bildumazaletasunagaz lotutako liburuak, katalogoak, aldizkariak...

—Etorkizuneko zigilu-markatzeko gaitararako ideiarik ba al daukazue?

—Bai: txirindularitza zirkuitua, Agirreren omenezkoa, Kultur Etxearen urteurrena, Algortako Kasinoa... baina beste batzuk ere sor daitezke elkarteko 50 kideen artean.

"Txikitatik hasi behar du bildumazaleak bidea, bestela oso gaxa da"

—Bildumazaleak ez dauka gaurko gazteen artean pisu handirik...

—Bildumazaleak txikitatik hasi behar du bidea, zaletu baten laguntzaren eta interesaren ondorengoa, bestela oso gaxa da, gaur aisialdirako mila aukera daudelako. Hala ere, gure atek zabalik daude. Amaitzeko, azaldu gura genuke zigilu, seilu, txanpon eta billeteen bidez historia ikasi eta ezagut daitekeela, historiaren zati ere badirelako. m

Balkoitik Balkoira bertsotan

Ekaineko 17. gauean Portu Zaharrean Sustrai Kolinak eta Etxahun Lekuek abestuko dute



VII. Balkoitik Balkoira bertso-saiorako hitzordua ekainaren 17an, barikua, ipini du Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE). Bertsolariak oholtza gainean ikustera ohituta gauden honetan, bertso-saio horrek badauka beste saioetatik bereizten duen ezaugarri bat: lehengo bertso-saioak egiten ziren modura egiten dela, antzinako erara, hau da, bertsolariak balkoi batetik bestera dihardute kantuan.

Portu Zaharreko Etxetxu plazara bertaratuko diren bertsozaleak gozarazteko erantzukizuna eta balkoitik dakusatena plazarazteko ardura bi bertsolari gaztek edukiko dute aurten: Larrabetzuko Etxahun Lekuek eta Urruñako (Lapurdi) Sustrai Kolinak, hain zuzen.

Hileko azken aurreko barikuan, gaueko 22:00etatik aurrera, bizkaiera eta lapurtera haize getxoztarragaz nahastuko dira, eta Hegoaldearen eta Iparraldearen bategitearen lekuko izango da Portu Zaharra.

Balkoitik zaleen artera

Orain dela hiru urtetik gaur arte, Balkoitik Balkoira saioa bertsolarien leku aldaketaren arabera hiru zatitan banatzen da. Lehenengoan, bertsolariak balkoi baten dihardute bertsotan, bata benetako balkoi batetik eta bestea berenberegiz paratutako hala-moduzko beste balkoi batetik. Bigarren zatian, balkoi aldaketa egiten dute; eta azkenengoan, zaleen artean botako dituzte bertsoak. m

GAZTEEN PROIEKTUAK BULTZATZEKO 6.000 EURO BIDERATUKO DITU UDALAK

Gazteria Zerbitzuetatik proiektu bila dabilta: udalerriko eskaintza kultural eta sozialean gazteen parte-hartze aktiboa sustatzeko diru-laguntza lerro berri bat zabaldu dute. Egitasmoaren berritasuna elkarrekin ez dauden gazteei (30 urtetik behera) zuzenduta dagoela da. Hitzaldiak, erakusketak, ikus-entzunezko proiektuak, lantegiak, ikastaroak, antzezlanak, film laburrak, etab. gauzatzen laguntzeko denetara 6.000 euro zuzenduko ditu Udalak. Proposamenak aurkezteko epea uztailearen 11ra arte dago zabalik.

Harremanetarako: 94 466 00 18

GETXOKO DANTZA TAULA GAINERA EKAINAREN 18 ETA 19AN

XII. Getxoztar Dantza Eguna ekaineko azken aurreko aste-akabuan ospatuko da. Bertan udalerriko lau dantza akademia eta eskolotako ikasleen koreografiakaz gozamina hartzeko aukera egongo da. Ana Lara akademiako (12:30) eta Ana Rosa Tercero akademiako (19:00) dantzariak ekainaren 18an talaratuko dituzte euren lanak. Hurrengo egunean, Flamenko eskolako (12:30) eta Carmen Vera akademiako ikasleek jardungo dute (19:00). Sarrera gonbidapen bitartez egingo da.

LORCAREN AMOR DE DON PERLIPLIN CON BELISA EN SU JARDIN ANTZOKIAN


Gasteizko Eszena Arte Tailerra konpainiak Federico Garcia Lorcaen *Amor de Don Perliplin con Belisa en su Jardin* antzerki lana eskainiko du Getxo Antzokian. Ekainaren 10ean jarri dute hitzordua gaueko 20:00etan. Sarrerek 3 euroko salneurria daukate eta dagoeneko salgai daude. Lorcaen antzerki lan hori 1929an zentsuratua izan zen eta ez zen oholtza gainean antzeztu 1933ra arte.

cianoplan Reprografía

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Kartelak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
enmarkaketak •



Saharako umeak berriro gure artean

Errefuxiatuen kanpamenduetan **egoera lazgarria** da eta Frente Polisarioan armak hartzeko ideia hedatuz doa

Uztailaren 9tik aurrera Saharako umeak ikusiko ditugu gure herrian. Hainbat urte igaro dira ekimena hasi zenetik eta Saharako gatazka denboran luzatzen denaren seinale da. Aurtengo kanpaina "ondo" doala komentatu digu Fath Sahararen Aldeko Elkarteko kide Luis Lopezek: "Familia askok deitu dute, guztira Leioan zazpi familiariek etxeratuko dute haurren bat". Gainera, beste urteetako esperientzia kontuan hartzen badugu, balorazioa guztiz positiboa egin daiteke bai familiarren, bai umearen ikuspuntutik. Luis elkartekideak azaldu digunez, "jende askok errepikatu egiten du; guztiz betetzen duen esperientzia da". Umeek bere aldetik, desertuko kanpamenduetako bizi-baldintza gogorak ahazten

«Saharako umeak gurean ikusteak arazoak dirauela gogorarazten digu»

dituzte bi hilabetetako oporrak gozatzeko. Hori da, hain zuzen, kanpainaren helburuetako bat, "umeentzako zoragarria izaten da, han ozta-ozta bizirauteko baldintzak dituzte; hona datoz eta una, hondartza, mendia, fruta... ezagutzen dute. Gainera ekintzak antolatzen ditugu denok elkarrekin egiteko". Beste helburuetako bat, jendeak Saharako herriaren arazoaz kontzientzia hartzea da, "gure artean umeak ikusten ditugunean jabe-



Leioako Fath Sahararen Aldeko Elkarteko kideak

tzen gara arazoak hor jarraitzen duela".

Lehen udalek bultzatzen zuen kanpaina hau. 1998an, ordea, haurrak etxeratu zituzten kideetako batzuk batu eta elkarteak sortu zuten, "kanpaina aurrera eramateaz gain, Sahararren aldeko babes eta ekimen gehiago sortzeko".

Mendebaldeko Sahara

1991an Nazio Batuen babesaz Maroko eta Frente Polisarioaren arteko gerra amaitzeko

autodeterminazio erreferenduma adostu zuten. Hitzartutakoa, berriz, betetzeko zain daude oraindik sahararrak. Fath-eko kide Luis Lopezek argitu digunez, gaur egungo egoera nahiko latza da, "bi urtetik hona mundu mailako laguntza erdira murriztu da eta lur jota daude". Are gehiago, armak hartzeari buruzko eztabaida mahai gainean da Frente Polisarioan, "aukera horrek gero eta pisu handiagoa dauka; tirorik ez dagoenean arazorik ez dagoela ematen du eta". m

Artatzak 25 urte beteko ditu

Gurasoekiko hurbiltasuna eta ikasleei banakako hezkuntza ematea dira ikastetxearen ikur nagusiak



Rosa Martin ikastetxeko zuzendaria haurrez inguratuta

1980an Leioan hezkuntza zentro berria sortu zen: Artatza Ikastetxea. Guraso eta irakasleen ekimenez abiarazi zen proiektua eta udaletxearen babes osoa eduki zuen. Lehen urratsak gogorak suertatu ziren eskolako zuzendari Rosa Martinek azaldu digunez: "Ikasle kopuru handia genuen, 700 ikasle inguru, eta benetan zaila izan zen hasiera". Hala ere, zuzendariak "oroitzapen oso onak" ditu garai hartaz.

Orain, Artatza-Pinueta Ikastetxea askoz txikiagoa da ikasle kopuruari dagokionez: 80 ikasle eta 15 irakasle. Eta hori da, hain zuzen ere, eskolaren ikurretako bat. Rosak berak argudiatu digunez, ikasle kopuru txi-

kia izanda, "gurasoekiko hurbiltasuna eta ikasle bakoitzaren beharren arabera zerbitzua eskaintzea posible da". Horregatik, ikastetxearen helburua ez da hastapenetako ikastetxe handia berreskuratzea, baizik eta harreman eta zerbitzu hurbila eskaintzea ikasleei zein gurasoei. "Orain, eskola antolakuntza hankaz gora jartzea aztertzen ari gara, betiere ikasleei erantzun pertsonalizatua eskaintzeko". Aurten, eskolak 25 urte beteko ditu eta 80ko hamarkadan ikasten egon ziren ikasleen seme-alabak dira -bi urteko gelan zortzi haur- gaur egun Artatzako ikasgelak betetzen dituztenak. Ez da marka makala. m

ESKOLATIK KANPO EUSKARA BULTZATZEKO

Berdinean Euskaraz lelopean Leioako Euskara Zerbitzuak ekimen berria aurkeztu du. Helburua, eskolatik kanpo hainbat alorretan euskararen erabilera bultzatzea da. Aisialdirako, umeak zaintzeko, eskolaz kanpoko klaseak emateko edo saioak aurkezteko orduan euskarazko eskaintza egotea ziurtatu nahi du Euskara Zerbitzuak. Horretarako lan polita osatuko du euskararen presentzia indartzeko. Beraz, alor hauetan euskaraz jarduteko interesatuek jo dezatela Euskara Zerbitzura. (tel. 94 607 25 76)

GARAPEN JASANGARRIA LEIOAN

Leioako Udalak Leioako Tokiko Agenda 21 egitasmoa hasi du. Proiektu horren helburua udalerriko ingurumen, ekonomia eta gizarte azterketatik abiatuta ingurumenarekiko herri jasangarria bihurtzea da. Hondakinak murriztu eta kontsumoa orekatu, gizarte ezberdintasunak ezabatu eta ingurugiroa babestea dira planaren ildo nagusiak. Horretarako, herriko hainbat sektoretan -elkarteak, eskolak...- jardun beharko da. Proiektu honen berri emateko Udalak informazio aleak banatuko ditu aldiro etxeetara.



ERROTULOAK



Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Zure publizitatearen hemen
Zure publizitatearen hemen
Zure publizitatearen hemen

94 491 13 37

Iker Rementeria > kamera-operadorea

“Afrikako abenturan eguzkia izan dugu nagusi”

Ikerrek Erandioko Tartanga institutuan egin zituen ikus-entzunezko ikasketak eta praktketan ibilitako enpresan jarraitu du lau urtez lanean. Kasualitatea baino ez bada ere, aurten lehiaketa batetik bestera eramán du lanak. Keniako sabanara joan zen urtarrilean *Aventura en Africa* grabatzera. Bi hilabete eta erdi Afrikan eman ondoren, *Basetxe tabernan* sartuta egon zen hilabete eta jarraian Pirinioetan ibili da *Operación Pirineos* grabatzen.

Orain arte soinu teknikari edo kamera-operadore modura egin izan du lan Ikerrek eta mundu horretan jarraitu nahiko luke aurrerantzean ere. Telebistan eza-gunak izan diren programetan ezkutuko lanean aritu izan da. *El Factor Humano*, *Abre los ojos* edo *El topo* aipatu ditu bere hasierako lanen artean.

Baina aurten bertan, urtarriletik martxora bitartean, Keniako Tsavo parke nazionalan Antena 3 telebista katearentzat grabatutako *Aventura en Africa* izan du lan esperientziarik politena eta gogoangarriena. Eta zer esanik ez, baita gogorrena ere. Eguzkiak 50 gradutik gora jar-

«Hilabete bi eman ditu Ikerrek Afrikan beharrean 50 gradutik gorako tenperatura zegoela»

tzen zuen termometroa egunero eta lanaldia goizeko 4:30etatik arratsaldeko 19:00-ak arte luzatzen zen. Ibili ere kilometro asko ibili behar izan du sabanan atzera eta aurrera. Lehiatzaileak uraren bila doazela eta 8 ordu dabilzala, kamerak ere orpoz orpo jarraitu behar haiei. Eta halako egoeretan zailena eta aldi berean politena elkarrekin bizitzearen abentura dela esan digu: “150 lagun inguru elkartu ginen Tsavoko hotel batean programa grabatzeko eta jende jator asko ezagutzeko aukera eman dit”.

Sarritan kamera angularra jendearen muturrean barru-barruraino sartu, eta jendearen aurpegia deformatu ere egiten dutela esan diogunean Ikerrek erantzun digu hartze edo toma aproposak egiteko



Edonora abiatzeko prest dauka beti motxila Ikerrek

gain-gainean egon beharra daukatela, bestela ez dutela eta ezer lortzen. Lehiatzaileek ere ikasi egin behar dutela kamerarekin dabilzanek zelan egiten duten lan eta berehala ohitzen direla kamera aurrean egotera. Baina gorabeherak ere izaten dira: “Haiek lehiatzen ari dira eta zuk esaten diezu itzaroteko, gertakizuna grabatu egin behar duzula eta, noski, batzuetan moskatu egiten dira”.

Bi hilabete eta erdi Kenian, hilabete eta piku Deban, 18 egun Pirinioetan... Horrela joan da Ikerren bizimodua aurten, lana eduki duenean. Elkarrizketa egin diogun egunean bertan geratu da langabezian. Ekoizpen-etxeak dira ikus-entzunezkoen arloan lana aurkitzeko bidea, eta orain hor dabil curriculumak aurkezten batean eta bestean. Prest dauka motxila edonora abiatzeko. m

Udal Musika Eskola

Ateak zabalik beti musikaren mundura hurbildu nahi duenarentzat



Eskolako haurren erakustaldia

Musika Eskolak maiatzean ireki zuen datorren ikasturterako matrikulazio epea, lehenengo bertako ikasleentzat eta gero, ekainaren 15era arte, ikasle berrientzat. Halere, Erandioko Musika Eskolak ez die aterik itxiko datorren ikasturtearen hasieran izena ematera doazenei eta gonbitea luzatzen die oraindik bertara hurbildu ez diren adin guztietako erandioztarrei musika ezagutu eta musikaz disfrutatzen ikasteko.

Maiatzaren 20an, esaterako, Altzaga, Goikolanda eta Ignacio Aldekoa ikastetxeetako ikasleak gonbidatu zituzten Musika Eskola ezagutzera eta antzerki talde baten laguntzaz prestatutako ikuskizun musikalez gozatzera.

Musika irakaskuntza ez arautua eta hainbat musika-tresna jotzen ikasteko aukera eskaintzen die Musika Eskolak 4 urtetik gorako adin guztietako herritarrei. 2004-2005 ikasturtean 280 ikasle izan ditu eta ikasle askoz gehiagorengana iritsi nahiko

luke hurrengo urteetan. Musika-tresnak aukeratzeko orduan pianoa izan da jende gehien erakarri duena azken ikasturtean. 55 lagun aritu dira piano ikasketak egiten. Gitarra aukeratu dutenak 35 izan dira eta akordeoia, flauta edo biolina beste 22-24 pertsonaren aukera izan da. Trikitixa astintzen 12 ibili dira eta 6 panderoa jotzen.

Datorren ikasturterako beste urrats bat ere emango du Musika Eskolak euskararen erabileraren aldetik eta matrikula egiteko orduan, ikasketak euskaraz ala gaztelaniaz egin nahi dituzten galdetu zaie ikasleei edo ikasleen gurasoei.

Bestalde, joan den maiatzean Elgoibarraren ospatu zen Musikaldian Erandioko Udal Musika Eskolak jaso zuen hurrengo Musikaldia antolatzeko lekukoa. Hortaz, Euskadiko Musika Eskolak bi urterik behin antolatzen duen Musikaldiaren hurrengo ekitaldia Erandion egingo du 2007ko maiatzean. m

ASTRABUDUAN EUSKAL SELEKZIOEI BAI, EKAINAREN 18AN

Euskal Selektzioen aldeko Astrabuduko taldeak jaia antolatu du datorren ekainaren 18rako. Goizeko 11:00etan emango diote hasiera jai giroari txistulari, gaitero, zanpantzar eta buruhandien kalejirarekin. Gero, egun osoan izango dira ekitaldiak iaz izandako arrakastari eutsi eta, ahal bada, gainditzeko asmoz. 12:00etan aurkezpena egingo dute, harrijasotzaileen eta Trabudu dantzari taldearen ekitaldiarekin batera. 13:00etan txalapartariak joko dute (Ugarte anaiek), 14:00etan trikipoteoa Kepa Arizabalaga eta Roberto Etxeberriarekin, 14:30ean herri bazkaria, 16:30ean bertsolariak, 17:00etan umeentzako ipuin kontalaria, 18:00etan herri kirolak eta kickboxing, eta amaizeko 20:00etan erromeria izango dira Astrabuduan.

Gure herrian euskal selektzioen aldeko iritzia zabaltzea dute helburu AESAIT taldean bitzen diren lagunek.

ERANDIOKO KANPAMENDUAK

Gautxoriak Taldea Kultur Elkarteak 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat kanpamenduak antolatu ditu aurten Nafarroako Artaza-Amezkoa herrian. Euskaraz bizitzeko gai diren neska-mutileri zuzendutako deialdia egin dute eta izena ematen dutenak bi txandatan joango dira Urbasako parkean kokatutako herri horretara. Lehenengo txanda uztailearen 2tik 9ra izango da eta bigarrena uztailearen 9tik 16ra. Izena emateko epea maiatzaren amaiera arte egon da zabalik, baina inor interesaturik egonez gero, telefono honetara dei dezake lekurik dagoen jakiteko: 679 353 690.

BERDINEAN EUSKARAZ

Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak deialdia zabaldu du umejagole, kirol begirale, aisialdiko begirale eta aurkezle zerrendak ez ezik klase partikularrek euskaraz emateko gai diren pertsonen zerrendak ere osatzeko. Zerrenda horiek lan-poltsa modura erabiliiko dira eta guraso-elkartei, ikastetxei eta bestelako elkartei bidaliko zaizkie era horretako lanetarako premia dutenetan erabiltzeko. Pertsona batek zerrenda batean edo gehiagotan eman dezake izena. Ez da inolako azterketarik edo probarik egingo eta curriculum vitae zehatza aurkeztu beharko dute interesatuek, antzeko lanetan izandako esperientzia azpimarratuz. Urte osoan egongo da zabalik izena emateko epea.

Ekimen hau Leioako Udaleko eta Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuekin batera bideratu du Erandioko Euskara Zerbitzuak.

INGELESEZ, GAZTELERAZ ETA EUSKARAZ EMANGO DITUZTE IRAKASGAIK INSTITUTUAN

Sopelana Institutuak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eleaniztasun proiektu berrian parte hartuko du beste 19 ikastetxegaz batera. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan gauzatuko da egitasmoa bi urtez. Proiektua hurrengoan datza: gaztelaniaz astean 4 ordu emango dira (gaztelera irakasgaia bakarrik), ingelesez ikus-entzunezko komunikabidea, ingelesa, alternatiba eta tutoretza, guztira 7 ordu astero; eta gainontzeko irakasgaiak euskaraz eskainiko dituzte, 19 ordu denetara astean zehar. Datorren ikasturtean ekingo diote 3 hizkuntzetan oinarritzen den egitasmoari.

TAI-TXI TALDEAK WUSHU TXAPELKETA ANTOLATU DU EKAINAREN 18RAKO

Sopelanako Tai-Txi taldeak Wushu txapelketa prestatuko du ekainaren 18an, zapatua. Ekitaldia Urko kiroldegian egingo da eta arratsaldeko 16:00ak aldera hasiko dela iragarri dute eta 21:00etan edo amaizuko dela. Wushu jarduerak zertan datzan ezagutu gura duenak edota ikuskizunagaz gozatu nahi duenak ezin du aukera paregabe hori galdu.

EA ALDERDIAK EZ ZUEN OTA SISTEMAREN ALDE BOZKATU

Orain dela bi zenbaki Sopelanako Udalak herrian TAO (Trafikoaren eta Aparkamenduaren Ordenamendua) sistema ezartzea onartu zuela azaldu genuen orrialde hauetan. Berriak oposizio alderdiek egitasmoaren kontra bozkatu zutela zioen eta EAJ eta EA alderdien botoagaz onartu zela. Bada, EAK ez zuela alde bozkatu jakinarazi digute alderdi horretako kideek eta honen bidez hori zabaldu gura dugu.

Jam Jaia ekainaren 12an Arietara hondartza kaleko arteen lekuko



Hondartzako Udalaren lokalen kanpo aldea grafiti berriein atonduko dute

Graffitigileak, DJak eta b. boyingak protagonista izango dira ekainaren 12an, Arrietaran egingo den Jam Jaian (10:30-16:00). Hondartzako Udalaren lokalen kanpo aldea atontzea da asmo nagusia. Lehengo irudia egoera txarrean zegoen eta mota askotako grafitiak zeuzkan gainean, horregatik horma-irudi berri bat egingo dute, eta irudian berenberegiz utzitako hutsuneak betetzeko ardura graffitigile ezagunek edukiko dute. Horrela, grafitia kultur eta arte adierazpidea badela zabaldu gura da. Horma-irudiaren diseinua eskualdeko Jorge Lopez de Guereñu muralista handiak egin du eta ingurumena, surf, parapente eta delta hegala lotura dauka.

Horren ondotik, graffitiaz lotura sakona daukaten musika mota eta dantza estiloa batu eta Jam Jaia antolatu dute. Musika hurrengo esku doa: turntablism musika jorratzen duen *Idiomatics* taldea (Joko, Travis, Alphax eta Sey), *LG Funk* eta *Swampdog* DJak (neo-soul, funk eta R&B doinuak) eta *Ghetto Flavako Rudolph* (big beat estiloa). Graffitigileen artean, besteak beste, *Kreatides* taldekoek jardungo dute: Yubia, Savage Girl, Frik eta Puzzle. B. boying (break-dance) dantzariak Iruñeko *Team Rockets* taldekoak izango dira. Seyk antolatutako ekimena da, Udalaren eta Lapiz enpresako Jorge Lopez de Gereñuren laguntzagaz. m

Patxi Ziskar pilota-gizona Pala jokalaria ohia eta Kureneko gaurko maisu



Patxi Ziskar harrobiko pilotariakaz inguratuta Sopelanako frontoian, non bestela!

Patxi Ziskar (Bakio, 1972) Mungian hazi zen eta bertan sorgindu zuen pilotak, gaur arte dirau bere barnean orduko pilotakadak. Berangon bizi da gaur egun eta Sopelanako Kurene Pilota elkartearen dihardu lanean.

Hamar urte zeuzkala ekin zion eskupilotari, baina handik 3 urtera pala hartu zuen eskuan. 19 urtegin egin zen palari profesional eta 11 urte eman ditu bertan. Alabaina, bitartean minbiziak bidalitako pilotakada gaiztoari aurre egin behar izan zion, 5 urte eman zituen bajaran, baina pilota hura harrotzea lortu du. Deportivo enpresan aurrelari moduan ibili zen, eta Totorikarenean (azken urteak) atzelari. Orain dela urte eta erdi inguru hartu zuen profesional mailako erretiroa, baina ez ditu ez pala ezta eskupilota ere bere bidetik aldendu, zaletu mailan jokatzen jarraitzen du eta frontoian "bizitzen" darrai. Zaletu mailan Euskadiko txapela bururatu du anaiagaz batera, Herriarteko txapelketa ere eskuratu du, eta Bizkaiko txapeldun izan da pala motzean eta palan (Gotzon Garaigaz

batera). Euskadiko Federazioako pala-hautatzailea da eta 7 urte daroaz harrobiagaz lanean, azken bi denboraldiak Sopelanan. "Batzen-tzako lan gaxa izango da umeakaz-eta lan egitea, pilotan jolasten erakustea, niretzako erraza da, gustura egiten dut, baina egia da ordu asko sartu behar direla", diosku Ziskarrek.

Kureneko harrobiaren ardura

Kurene pilota elkartearen 35 palarik (kadete, gazte, eta nagusi mailak) eta 50 bat lagunek dihardute eskupilotan (aurre-benjaminetatik nagusiak arte). "Batez ere palan maila oso ona daukagu eta Federazioak edota Kureneko antolatutako partida eta txapelketa asko, makina bat, jokatzen dira frontoi honetan, ikanagarria da", diosku harro Ziskarrek. Amaitzeko, Ziskarrek ez du Kurenerean inguruan dabilzaneiz eta laguntza ematen duten denei eskerrak eman barik lotu gura, eta aldarrikapenen artean pilotaleku berria estalkiagaz ikustea gustatuko litzaiokeela dio. m

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

94 491 13 37

LAIKAK
Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tif. 94.6760328

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO


- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



zuri haitz
jan eta edan

4 bide pinturak



RIPOLIN

BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

OTXANDATEGITARREN EUSKAL DANTZAK ETA ADAGGIOREN BALET IKUSKIZUNA

Berangoko Udalak herriko elkarteak batera antolatzen dituen Kultur Jardunaldiak aurrera doaz. Hurrengo ekitaldien artean bi dantza ikuskizun daude. Batetik, herriko Simon Otxandategi Dantza Taldearen eskutik euskal dantzak gozamina hartuko dute ekainaren 5ean, domeka, 13:00ean Eskolara (euria eginez gero frontoian) bertaraten direnek. Bestetik, ekainaren 18an, zapatua, 12:00etan Adaggio taldeak balet ikuskizuna antolatuko du, eta ekitaldi hau ere Eskolan egingo da.

Informazio gehiago: www.berango.net



GURASOENTZAKO EUSKAL JOLASAK LANTEGIA, EKAINAK 13-16

Kultur Jardunaldien barruan ere guraso berangoztarrei zuzendutako Euskal Jolasak lantegia laster hasiko da. 15 lagunek eman dute izena bertan eta besteak beste guraso euskaldunei haurtzaroko jolasak euskaraz ikasteko aukera eman, eta gainontzekoei seme-alabakaz harremana euskalduntzeko tresna baliagarria izateko helburuagaz antolatu da lantegia. Ekimena ekainaren 13tik 16ra egingo da, 17:00etatik 19:00etara Eskolan.

Txakolin Eguna ekainaren 19an Berangoko uzta gero eta hobea



Argazkian, Berangoko mahasti eder bat

Txakolingileen Laguntzaileak elkarrekin hilaren 19an (12:00etatik aurrera) ipini du zita Sabino Arana kalean. Berangoko txakolina eta txakolineruak herriaren ezagutarazteko asmoa daukan ekimenak 5. urteurrena beteko du.

Aurten 18 txakolingile berangoztarren uzta dastatzeko aukera egongo da: Sustatxa, Iñaki Cardas, Juan Uranga, Tomas Markaida, Andoni Urrutia, Saitua "Palaparru", Lekanda "Landazabale", Esteban Iratxagorria, Sagar-Etxe, Olatxite, Aretxaga "Iturralde", Felix Mardaras "Aitzgane Barri", Iñaki Arrieta, Pedro Cadavid, Manolo Bustelo "Basotxu", Mastigane, Ramon Fernandez "Olatxite" eta Jesus Uribarri "Trabudu". Berri-

kuntzen artean dago txakolineru guztiek botiletan euren izena jartzen duen etiketa edukiko dutela. Berangoko txakolinagaz gozatu gura duenak Txakolingileen Laguntzaileak beren beregi egingo dituen kopetako bat erosi beharko du. Iaz 600 kopa egin zituzten, aurten 700 egingo dituzte, Txakolin Egunaren eta Berangoko txakolinaren sasoi ona adierazten du horrek. Elkarteko kide Iñaki Arestik azaldu digun legez, "Berangoko txakolineruak oraindik ez daude Bizkaiko Txakolinaren barruan, hor sartzea da helburua, eta laster lortuko dugulakoan gaude". Berangoko Udalak herriko elkarteak batera antolatzen duen ekimenen artean dago Txakolin Eguna. m

Victor Arrizabalaga > Hirigintzako zinegotzia Kultur Etxea, frontoia eta 60 etxebizitza sozial eraikitzeke egitasmoak badoaz aurrera



Argazkian, Arrizabalaga jauna Urdulizko frontoiaren aurrean

Pilotalekua, Kultur Etxea eta 60 etxebizitza sozial eraikitzeke egitasmoak aurrera eramateko lehenengo pausua eman ditu dagoeneko Urdulizko Udalak.

Kirol instalakuntzen gainean Hirigintza zinegotzi Victor Arrizabalagak azaldu duen legez, "frontoi berriko lanak ekain honetan bertan hastea espero dugu, eta hemendik 4 bat hilabetetara erabiltzeko prest egotea". Pilotaleku zaharraren aurrean, bidearen beste aldean, egingo dute frontoi berria eta berau amaituta dagoenean botako dute zaharra. Gerora, frontoi zaharra lekutzen den gunea berrantolatu beharko dute, oraingo zirkulazio arazoak konpontzeko. "Zaharra legez, estalki bakoa izango da, baina luzeagoa eta alboan plaza bat ere edukiko du", azaldu du Arrizabalagak. Frontoia eta plaza egiteko aurrekontua 445.277 eurokoa da. Bestalde, futbol zelaia egiteko proiektua ere egiten dabilta. Horren alboan beste kirol instalakuntza batzuk egiteko lekua ere badago baina zer egingo den oraindik ez dute zehaztu.

Osterantzean, Kultur Etxea eraikitzeke kontratazio tramitea ere hasi da. Osasun Zentroa eta Nagusien Etxetik aurrera lekutzen du proiektuak Kultur Etxea: bi pisuko eraikina izango da, eta berezitasunen artean dago eszenatokiak kalera ere eman lezakeela. "Lanak uda ostean hasi eta 20 hileko epean amaitzeko esperantza daukagu", dio Hirigintza zinegotziak. Horretarako aurrekontua 2.222.000 eurokoa da.

Etxebizitza sozialen zonaldea

San Fermin guneko atzeko partean 60 etxebizitza sozial egiteko asmoa dauka Urdulizko Udalak. Hil honetan-edo zonaldea urbanizatzeko lanak hasiko dituztela adierazi du Arrizabalagak, eta etxebizitzak eraikitzeke urtea amaitu baino lehen ekingo dietela. 1.076.480 euro gastatuko ditu Udalak urbanizazio lanetan eta egitekoek hemendik 8 hilabetera amaituta egon beharko lukete. Etxebizitzok eman ostean, gehiago egiteko asmoa ere badago Udalaren helburuen artean. m



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15




Teléfono: 946 761 128

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

ARATZ DANTZA TALDEAREN URTEURRENA OSPATZEKO EKITALDIAK

Gorlizko Aratz dantza taldearen zilarrezko ezteiak ospatzeko ekitaldiak ekainaren 18an egingo dituzte. Gaueko 22:00etatik aurrera lberrebarin gaurko dantzariak eta dantzari ohiek dantzaldia eskainiko dute; gainera, txistulariak, txalaparta eta hari-instrumentuen doinuak egongo dira. Bestalde, uztailaren 2tik 10era taldearen argazki erakusketa paratuko dute Gorlizko kultur etxean.

LUIS MARI GERNIKA TXISTULARIARI OMENALDIA EGINGO DIO BARRIKAK

Barrikako txistulari handi Luis Mari Gernikari omenaldia egingo diote ekainaren 5ean barrikarrek. Herriaren alde hamaika ekimen eta lan egin zituen Gernikak: Gure lzerdia txokoko sortzaile, txistu irakasle... Herrian sano ezaguna zen txistulariari gorazarre egiteko meza bat eta bazkaria antolatu dute bere lagunak.

UMEENTZAKO EUSKAL JOLASAK LANTEGIA

Lau eta hamar urte bitarteko umeentzako Euskal Jolasak lantegiak egongo dira Gorlizen eta Barrikan. Ekitaldiak arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara egingo dira, Gorlizen: hilak 9, 16, 23 eta 30 eta Barrikan ekainak 10, 17 eta 18.

EMAKUMEEN BIRA

Ekainaren 11n txirrindulari profesionalak gurean



160 txirrindularitik gora parte hartuko dute Biran

Uribe Kostak XVIII. Emakumeen Biraren etapa bat hartuko du aurten ere ekainaren 11n. Azken aurreko etaparen bigarren sektorea, arratsaldekoa hain zuzen ere. Sopelanan egongo dira irteera eta helmuga eta lasterke-ta 16:30ean hasiko da. Etapa, besteak beste, Sopelana, Urduliz, Andraka, Plentzia, Barrika eta Armintzatik pasako da eta guztira txirrindulariek 88,8 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Gure eskualdean, beraz, izen handiko txirrindulariak ikusteko aukera

egongo da, hala nola: Joane Somarriba, Fabiana Luperini, Nicole Brandli, Eneritz Iturriagaetxebarria, Hanka Kupfernagel, Zulfia Zafiroba, Mirjam Melchers, Sara Carriga, Nekane Lasa, Svelana Bubnen-koba, Trixi Worrack, eta abar luze bat.

Denetara 17 taldek parte hartuko dute ekainaren 9an Iurretan hasiko den Emakumeen Biran, 160 txirrindularitik gora. Amaitzeko, Bilbok hartuko du azken etapa ekainaren 12an. m

Ekai. 5 - 19

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

- **Komiki lantegiko lanak.** Algortako kultur etxea. Ekainak 6-17.
- **ECCA.** Erromoko kultur etxea. Ekainak 13-17.

PLENTZIA

- **Araldi elkarteko lantegien lanak.** Eskulanak eta margoak. Erakusketa gela. Ekainak 1-19.

GORLIZ

- **Makalen Ucelayren artelanak.** Eloisa Artazako Erakustaretoa. Ekainaren 9ra arte.
- **Itsas-maskorakaz egindako koadroak.** Mikel Viar. Eloisa Artazako Erakustaretoa. Ekainak 11-17.

SOPELANA

- **Mendebaldeko Sahara: Sahararren herria.** Erakusketa gela. Ekainaren 15era arte.

LEIOA

- **EHU Erasmus.** 18 artisten lanak. Kultur Leioako Erakusketa Aretoa. Ekainak 13-30.
- **Ibaialde-Azterkosta.** Elexalde Errota. Ekainak 14-23.


URDULIZ

- **Andra Mari Jaiak 2005.** Kartelak. Kultur Etxea. Ekainak 14-30.

ZINEMA

LEIOA

- **Robot.** Haur Zinea. Denboraldiaren amaiera. Kultur Leioa. Ekainak 5, domeka. 12:00 eta 17:00.
- **Entre Copas.** Zine komertziala. Denboraldi amaiera. Kultur Leioa. Ekainak 4, 19:00 eta 22:00. Ekainak 5 eta 6, 20:00.



Argazkian, Alain Goikoetxea skater algortarra

► Erakusketa

Carlos Terrerosen argazkiak

Tamaina handiko kolore eta zuribeltzeko hamazortzi argazki ikusgarri osatzen dute dagoeneko Algortako Satistegi kafean dagoen erakusketa hau. Carlos Terrerosen irudi hauek skateboarding kirolaren edertasuna eta deigarritasuna ezin hobeto islatzen dute. Aipagarria da argazki guztiak Uribe Kostan ateratakoak direla; izan ere, UK-kook antolatu dugu erakusketa hau eta egileari eskaera hori egin genion.

* Egilearen lan gehiago ikusi nahi izanez gero: www.terrefoto.com

- **Non:** Satistegi kafea, Algorta • **Noiz:** uztailaren 15 arte

PLENTZIA

- **Sin Chan. La invasion.** Haurrentzako zinea. Erakusgela. Ekainak 4, zapatua. 18:00.

► La sombra de un secuestro.

Helduentzako zinea. Erakusgela. Ekainak 10, barikua. 22:00.

► Inteligencia Artificial.

Gazteentzako zinea. Erakusgela. Ekainak 11, zapatua. 18:00.

► The Company.

Helduentzako zinea. Erakusgela. Ekainak 17, barikua. 22:00.

► El castillo en el cielo.

Haurrentzako zinea. Erakusgela. Ekainak 18, zapatua. 18:00.

► **Roma** Helduentzako zinea. Erakusgela. Ekainak 24, barikua. 22:00.

ANTZERKIA

GETXO

- **XIII. Eskola Antzerki Jardunaldiak.** Udalerriko eskola, DBH zentro eta ikastoletako ikasleen antzerki lanak.

Getxo Antzokia. Ekainak 4, 17:00. Ekainak 5, 11:30-14:00 eta 17:00-19:30.

► **Amor de Don Perlimplín con Belisa en su Jardín.** Gasteizko Eszena Arte Tailerra. Getxo Antzokia. Ekainak 10, barikua. 20:00. Sarrera: 3 euro.

► **El jardín de la Caridades.** Getxoko Antzerki Eskolaren 6. "Emakume Bideak" zikloaren barruan. Burbuja konpainia. Getxo Antzokia. Ekainak 11, zapatua. 20:00. Sarrera: 3 euro

LEIOA

► **Ay... Manolo.** Tentacion Peineta. Kultur Leioa. Ekainak 10, barikua. 20:30. Sarrera: 10 euro.

GORLIZ

► **6 bider 7.** Kultur Etxeko antzerki lantegiko taldea. Kultur Etxean. Ekainak 8, eguaztena. 17:00.

ERANDIO

► **Mientras esperamos.** Getxoko Antzerki Eskolaren 6. "Emakume Bideak" zikloaren barruan. Entre Mujeres taldea. Bekoa ikastetxea. Ekainak 11, zapatua. 19:30.

BARRIKA

► **Umeentzako Antzerki lantegia.** Barrikako liburuketgia. Ekainak 11, zapatua. 11:30.

BESTEAK

SOPELANA

► **JAM jaiak.** Graffiti, DJ eta dantzariak. Arrietara hondartzak. Ekainak 12, domeka. 10:30-16:00.

BARRIKA

► **XVII. Margo Lehiaketa.** Goierrri. Ekainak 19, domeka. 09:30-17:30.

LEIOA

► **¡Nada... nada!** Haur dantza ikuskizuna. Aracaladanza konpainia. Kultur Leioa. Ekainak 12, domeka. 12:00. Sarrera: 3 euro.

► **V. Jota txapelketa.** Errekalde plaza. Ekainak 12, domeka. 12:00. Izena emateko epea hilaren 9ra arte.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA
20º ANIVERSARIO
URTEURRENA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



[albuma]



Getxoarte 2005

Sormen eta arte lanetan gurean puntan dabilzan gazteen erakusleihu garrantzitsua da Getxoarte, Arte Sortu Berrien Aretoa. Aurtengoa bosgarren edizioa izan da eta berrogeita hamar artista bildu dira gaur egungo artegintzaren erreferentzia gune bihurtu den azoka honetara. Pintura, eskultura, fotografia, bideoa, instalazioak... ia denetarik ikusi dugu han. Orrialdeotara deigarriak iruditu zaizkigun lan batzuk ekarri ditugu.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Bizkaiko 29 hondartzetatik, hamabi Uribe Kostan dagoz. Eskualderik aberatsena gara, beraz, arlo horri dagokionez, Urdaibai itsasadarragaz batera. Era askotako hondartzak dauzkagu gainera: batzuk handiak eta jendetsuak, txiki eta lasaiak beste batzuk. Badator eguraldi ona eta, apurka-apurka, jendez betetzen hasi dira gure kostalde labartsua josten duten hari horiak. Bainu-sasoia ofiziala, hala ere, ez da hasi oraindik, edo ez guztiz behintzat. Bizkaiko Foru Aldundiak ekainaren 1ean ipini zituen udarako ekipamenduak, baina sorosleak ez dira hilaren 15era arte beharrezan hasiko. Aurten, gainera, berrikuntza handia dago arlo horretan.

Denok hondartzara!

Badator bainu-sasoia

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Datu batzuk

Hona hemen iazko bainu-sasoian (ekainaren 1etik irailaren 30era) Uribe Kostako hamabi hondartzek hartutako jende kopuruak:

- Areeta: 26.430
- Ereaga: 283.787
- Arrigunaga: 203.459
- Gorrondatxe: 81.708
- Barinatxe: 179.009
- Arriatera-Atxabiril: 389.720
- Meñakoz: 8.214
- Barrika: 5.779
- Muriola: 4.566
- Plentzia: 496.248
- Gortiz: 392.645
- Armintza: 6.558

Bizkaian, hiru hondartzek bakarrik hartu zuten Plentziak baino bisitari gehiago 2004an: La Arenak, Laidak eta Lagak.

Neurri dagokionez, Ereaga da eskualdeko hondartzarik luzeena: 882 metro. Bizkaiko hirugarrena da gainera, Bakio eta La Arenaren ondok. Azalera handiena, berriz, Barinatxek dauka (198.009 metro koadro, marea beheara dagoela). Arlo horretan, La Arena bakarrik gailentzen zaio Bizkaian.

*Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia

Badator uda. Badatoz auto-ilara luzeak, eta badatoz hondartzalez gainezkako metroak. Eguzkiak eta beroak gure hondartzetaz gozatu gura duten milaka lagunentzako etorbako joan-etorria ekarriko dute. Dozena bat hondartza dago Uribe Kostan, eta horietatik erdia-edo amu bikaina dira hiririk ihes egin gura dutenentzat. Badagoz askoz lasaiagoak ere; hala izaten jarraitzeko itxaropena daukagunez, ez ditugu larraituko.

Bainu-sasoia, ofizialki, ekainaren 15ean hasiko da Bizkaian, ekipamenduak ekainaren 1etik dagozen arren. Horrek esan gura du urteko gainerako aroetan ez dagoen hainbat zerbitzu egongo dela hondartzetan: garbiketa-zerbitzuak, zakar-

gokie. Lehenengo aldiz profesionalak izango dira, eta udal bakoitza arduratuko da eurak kontratatzeaz (soldata, berriz, Aldundiaren esku geratuko da). Uribe Kostako hondartza guztietan egoten da sorosle bat gitxienez, Meñakozen, Muriolan eta Armintzan izan ezik. Ikusi beharko da zenbat kontratatuko dituzten udalek aurten, baina aurreko urteetan, behinik behin, 50 inguruk jardun dute eskualdean. Jendetsuenek zortzi ere edukiten dituzte, titularrak eta ordezkoak batuta.

Zer litzateke hondartza saltoki barik?

Bainu-sasoian "ofizialtasuna" emoten dion beste gauza bat, zalantza barik, aro honetarako propio ipintzen diren saltokitxoak

«Uda honetako berrikuntza nagusia sorosleen profesionalizazioa da»

ontziak, sorosleak, bainua baimentzen edo debekatzen duten banderak...

Bizkaiko Foru Aldundiak dauka hori guztia kudeatzeko ardura nagusia, baina udaletxeak elkarlanean jarduten du, besteak beste. Aurten akordio berria adostu da lana banatzeko eta, 2001ean ez bezala, Getxok, Sopelanak, Gortiz eta Plentziak ere izenpetu dute.

Berrikuntzarik handiena sorosleei da-

dira. Espainiako Kostalde Zuzendaritzak emoten ditu horien kontzesioak, baina udalei dagokie baimenak emotea ala ukatzea. Aurten, esate baterako, Getxoko Udalak 50.000 euro inguru aterako ditu horiek ordaindu beharreko zergengatik. Iragarri duenez, gainera, neurri bereziak hartuko dituzte iruzurraren aurka. Antza, aurreko urteetan familia bereko pertsona desberdinak aurkeztu dira saltokia lortzeko



Beharginak Ereaga hondartzan udarako megafonia ipintzen

lehiaketetara, baimena lortzea ia ziurtatuz.

Kontuak kontu, guztira bederatzi izozkidendak eta zazpi tabernak aseko dituzte uda honetan Uribe Kostako hondartzetara doazen egarri-goseak. Gehienak, Getxon.

Bandera Urdinak eta ISO

Ez oso urruneko garai batean, hondartza guztiek eduki gura zuten Bandera Urdina. Hura zen, inondik ere, kalitatea adieraz-

bandera ezagunak. Hala, hondartza gitxi ahalegintzen dira eskuratzen dagoeneko. Iaz, esaterako, Plentziak baino ez zuen eduki, Uribe Kostako artean.

Horren ordez, ISO 9001 eta ISO 14001 ziurtagiriak bilatzen dira, horiek dira eta EBk sustatzen dituenak. Lehenengoak kalitatearen kudeaketa saritzen du, bigarrenak ingurumenarena. Momentuz, Bizkaiko bost hondartzak lortu dituzte, baina

«Uribe Kostako hondartza batek ere ez dauka, momentuz, ISO ziurtagiriak»

lerik onena. Baina orain urte batzuk, Europako Batasunak (EB) ikur hori kudeatzeari utzi zion; ardura GKE batek hartu zuen, eta harrezkerotik ospea galdu du

bakar batek ere ez Uribe Kostan. Aldundiak iragarri duenez, Sopelanako hondartzak izan litezke, aurten bertan gainera, ohore hori lortzen duten lehenengoak. o

Larrugorritan

Gogoan edukiko duzue orain dela hiruzpalau urte Getxoko Udalaren eta naturisten artean sortutako ika-mika. Udalak debekatu egin zuen herriko hondartzetan biluztea, Barinatxan izan ezik (hondartza horren Getxoko aldea da, hain zuten, nudismoa egin ohi dena). Euskadiko Naturista Elkarteak (ENE), protesta egin zuen neurri haren aurrean. Azkenean, Arartekoa ere ibili zen tartean, eta azkenik, nudistei gura duten lekuan biluzteko eskubidea aitortu zitzaion.

«Uribe Kosta da, hain zuzen ere, nudismoak indar gehien daukan Bizkaiko eskualdea»

Getxorako balio duenak besteentzat ere balio du. Esan gura dugu, gaur egun Uribe Kostako edozein hondartzatan topa litekeela nudistaren bat, "gutxika-gutxika edonon biluzteko eskubidea gauzatzen gabiltzalako", Maite Vicuña ENEko presidentek dioskunez. Hala ere, tradizioak badauka garrantzirik. Horregatik, nudismoa leku jakinei lotuta dago oraindik ere, hein handi batean. ENEren web orrian, hain zuzen, Uribe Kostan nudismoa egiteko tradiziozko lekuak zientzuk diren ikus daiteke. Eta jardun horrek gurean inon baino indar handiagoa daukala ondorioztatu daiteke ere bai: Bizkaian nudismoa egin ohi den zazpi hondartzetik, bost Uribe Kostan dagoz: Gorrondatxe, Barinatxe, Meñakoz, Barrika eta Muriola. Ikus dezakezuen, hondartza txiki, lasai eta ailegatzeko gatak dira nagusi.



Mojak Gorrondatxen

Fatima Diez Garaigorta

(www.tdi-images.com)

Itsasotik urrun, goitik behera lotsaz estalirik, seguru asko itsasbazerretetik paseatzen dabilen neskaren inbidia apur batekin...

Horrela erretratatu zuen Fatima Diez Garaigorta argazkilari algortarrak moja multzo honen ibiltzea Gorrondatxe hondartzan.



GORRONDATXE, 1982

[berbetan]

Uribe Kostan, eta Algortan batez ere, Acero abizena eta surfa sinonimoak dira ia-ia. Eneko hiru anaiatan bigarrena da; hirurak dira, edo izan dira, maila oneko surfari profesionalak, aita ere federazioan ibili zen denboraldi batez -“*bolada txar bat zen, eta aita laguntzera sartu zen, pare bat urtez*”-, eta antza, amari zor diote hondartzarenganako eta itsasoarenganako zaletasuna. Eneko Acerok 28 urte dauzka orain, eta maila ona emoten segitzen du mundu osoko olatuen gainean. Profesional modura daroazen hamar urteek heldutasuna emon diote, eta hori igari egiten da beragaz berba egitean. Lasai begirutzen dio, esaterako, etorkizunari, surfari profesionala izatea betiko ez dela jakitun, “*monentuz hiru urteko kontratua daukat, era gero gerokoak*”, diosku. Eta lasai egiten du berba, era berean, bere olatu kutunenetako batez: desagertu egin den Mundakako ezker olatuaz, hain zuzen. Hona hemen Eneko Acero, birritan Europako txapeldun eta Munduko Txapelketako bost probatan garaile, baina, batez ere, Algortako mutil jator bat.

Eneko Acero

Altzairuzko profesionala

Testua: **Unai Brea** / Erretratua: **Asier Mentxaka**

—Betidanik eduki duzu harremana hondartzagaz eta surfagaz...

—Batez ere nire amarengatik. Berari asko gustatu izan zaio hondartza. Txikitatik hondartzan egon gara beti. Nik hamaika urte neuzkan, eta Ikerrek hamabi, surfean hasi ginenean. Biak batera. Skatean ibiltzen ginen, Arrigunagan, eta uda hartan lagun guztiak -gu baino apur bat nagusia-goak ziren-, surf oholagaz ibiltzen hasi ziren. Probatu egin genuen, eta gero *txapa* itzela eman genion amari, Gabonetarako oholak eta materiala erosi ziezazkigun. Hurrengo urtean hasi ginen surf egiten.

—Iker ere surfari garrantzitsua izan da. Eredua izan da zuretzat?

—Bai. Ez surfari moduan bakarrik, pertsona moduan ere bai. Surfari moduan, bera oso ona izan da, eta bada oraindik, baina lehiaketa alboratuta utzi du, lanean hasi da...

—Zu, berriz, profesionala zara. Zelakoa da zure egun arrunt bat?

—Badakizu, surfariak itsasoaren menpe gagoz. Beraz, eguraldi-iragarpenak ikusi, Interneten begiratu... Baina bi hartzen ditut egunero, bakoitza ordu bikoak gitxi gorabehera; goizean edo arratsaldean, marea arabera, haizearen arabera... Astero hirutan gimnasia joaten naiz eta bitan footing egiten dut.

—Horrek badauka ordutegi finkorik?

—Gimnasioak eta footingak bai. Hori

“Jakín gura nuke zenbat diru mugitzen den Mundakako ezker olatuaren kontura”

beti egoten da hor. Baina olatuak ez dira beti hor egoten, beraz moldatu egin behar gara, olatua noiz etorriko zain.

—Eta non gustatzen zaizu gehien egunero baina horiek egitea?

—Mundakan. Hango ezker olatua munduko onenetakoa da eta...

—Gero egin beharko dugu horretaz berba, derrigorrez gainera...

—Bai, luzez egin beharko...

—Bitartean, zure eguneroko jardunaz berbetan jarraituko dugu. Orduan, goizean goiz altxa, Mundaka zelan dagoen begiratu, eta ospa?

—Bai. Neguan batez ere, beti joaten gara Mundakara, egunero. Iragarpenak ikusi, marea noiz den begiratu eta hara...

—Oso eguraldi txarra dagoen egun horietan ere bai?

—Bai, 0 gradu egon arren.

—Eta hori zergatik, profesional izateak behartzen zaituelako, edo benetan gustuko duzulako?

—Biak.

—Ez zaitu inork kontrolatzen?

—Errendimendu handiko zentroan. Analiak eta abar egiten dizkidan han.

—Esan gura dut inork ez duela begira-



[EnekoAcero]

tzen egunero zer egiten duzun edo zer ez duzun egiten...

—Ez, hori ez.

—Disziplinaz zorroztza ezarri beharko diozu zeure buruari, orduan...

—Bai. Badakit egunero sartuko naizela uretara, olatuak badaude, eta hori niretzat ez da disziplina. Gimnasia edo korrika egitera joateko da disziplina, horiek dira gehien kostatzen zaizkidanak. Baina egiten dut.

“Jantzi saltzaileek surfaren irudi hippya zabaltzen dute. Marketing hutsa”

—Zelako surflaria zara, zelan deskribatuko zenuke zeure estiloa?

—Uste dut erregularra naizela. Egunero maila ona ematen dut, gitxi gorabehera; suertea daukat, hori oso ona delako lehiazteko. Gainera, esaten dute dohaina daukadala olatua erraz “eroateko”. Ez dut gehiegi arriskatzen, baina oso erraz “eroaten” ei dut olatua.

—Zu irudi bat zara. Hau da, kontratatu zaituenak zure irudia kontratatu du...

—Bai, hori gara azken batean: irudia.

—Eta irudi hori ere zaindu egin behar da? Ahalik eta lirain eta politen egoten ahalegindu behar zara? Ustez, surflari eredu mutil eder, errubio, begi urdindu-

“Euskal Herria Europako bigarren edo hirugarren potentzia izango da surfean”

na da, ilea kresalak korapilotuta.

—Batez ere, surflari irudia zaindu behar da. Bidaiazalea, eta abar. Bestela, itxura fisiko aldetik ez dut uste arketipo hori dagoenik. Jendearen gogoan beharbada bai, baina gero denetik egoten da. Esporsorrekiko zaindu behar dena argazkiak dira, promozio-bidaia asko egin behar da... Pentsatzen dut itxura garrantzitsua izango dela argazki askotan agertu behar garen neurrian.

—Zelan egiten da norbera profesional?

Egun batean nonor etortzen zaizu eta esan egiten dizu: aizu...?

—Nire kasuan, ezustean eta arinegi izan zen. Oso gazte hasi nintzen lehiatzen; gauzak oso ondo joan zitzaizkidan, lehenengo inguru hurbilean, gero Europa mailan, eta halako batean, hamazazpi urte gaz, mundu mailan ere bai: laugarren geratu nintzen Portugalen, txapelketa batean. Eta orduan esponsor bat etorri zitzaidan: aizu, datoren urtean Munduko Txapelketa egin

behar duzu... Dena arinegi, beharbada. Hamazazpi urte neuzkan eta artean ume txoa nintzen.

—Damutu zaizu inoiz?

—Ez. Bizitzan gauzak holan etortzen dira, eta ez zait damutu. Oso gaztea nintzenetik, oso argi eduki dut zer egin gura nuen: surfean ibili, eta lehiatu.

—Zein duzu surf egiteko lekurik kutunena?

—Euskal Herrian, Mundaka.

—Eta munduan?

—Mentawai irlak, Sumatra mendebaldean. Hori da munduko lekurik onena.

—Orain bai: zer jazo da Mundakako zerk olatuagaz?

—Niri esan didatenez, behintzat, alde batetik ekologista batzuen kontua dago. Haremun batzuk berreskuratu gura zituzten, eta harea mugimendu batzuk egon dira. Bestetik, Murueta ontziolak dagoz tartean. Bizpahiru dragatu egin dituzte inguruan, nahiko handiak, eta gauza biek batera korronteak aldatu dituzte. Lehen harea zegoen lekuan orain ez dago, eta olatua desagertu egin da.

—Nork esan behar zuen olatu bat desagertzeak halako krisia eragingo zuenik!

—Egia esanda urte bi daroaz txarto, baina azkenean guztiz desagertu da. Guk protesta egin genuen hasieran, baina ez ziguten jaramonik egin. Orain zer gertatu da? Horetak, dendak... sartu direla tartean.

—Izen ere, olatu “garestia” da hori...

—Bene-benetan. Gustatuko litzaidake jakitea zenbat diru mugitzen den urtero olatu horren kontura.

—Eta zer gertatuko da?

—Esan dutenez ikerketa sakona egingo dute, eta konpondu. Ez dakit zelan. Barrerria da: guri hasieran ez ziguten jaramonik egin, baina diru aldetik gauzak txarto doazenean...

—Surflarioi negua gustatzen zaizue, ezta? Hondartza hutsik, eta abar...

—Tira, niri asko gustatzen zait uda, baina badauzka gauza txar bi: bata, garrantzitsuena, olaturik ez dagoela. Bestea, hemengo hondartzetan ez dagoela -Zarautzen bezala, esaterako-, surferako leku bat eta bainatzeko beste bat. Hemen denak batera goaz, eta beraz ni oso goiz edo oso berandu joaten naiz, bestela ez naiz uretan sartzen. Arreta handiagoa emon behar diozu jendeari surfari baino, norbaiti min eman diezaikezulako.

—Irudi bohemioa ere badaukazue: jaiak hondartzan, gauak, sua piztuta, neska-mutil ederrak, kezka handi barik...

—Asko handitu da surf-arropa salmenta, eta markek irudi hippy hori emon gura dute. Marketing hutsa.

—Zelako maila dauka Euskal Herriak surfean?

—Oso ona.

—Potentzia dela esan liteke?

—Mundu mailan ez, herrialde txikia garelako. Europa mailan, berriz, bigarrenak edo hirugarrenak izango gara.

—Eta Euskal Herria barruan, Uribe Kostak da potentziarik handiena?

—Zarautzen ere bada indarra. Uste dut gazterik onenak, orain, Zarautzen dagozela; eta mailarik onena, oro har, Uribe Kostan. m

VOLCOM

cianoplan
global printers

bbk

uk

**SK8UKN
CARLOS
TERRER
OS**

ARGAZKI ERAKUSKETA // PHOTO EXHIBITION
SATISTEGI KAFAA

Poolparty 2005

HAWKS
AURKEZTEN DU:
II TXAPELKETA AURRAK ETA JUBENILAK POOLPARTY.
GUZTIENTZAKO SARIAK. IZEN EMATEA LA KANTERAN
EKAINAREN 23AN 12:00TK AURRERA.

ROCKZONE

3SESENTA

sancheski

uk

Ekaina 23 La Kantera

www.skatepoolparty.com

Bilaketa Foru Alondria
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Cultura
GOBIERNO VASCO





Argiak eta itzalak

“Fotografiazalea naiz, eta horregatik irudiaren mundua ikertzea eta, aldi berean, ariketa horrekin disfrutatzea gustatzen zait. Aspaldian nabil zeregin honetan baina aro digitala sortu zenetik teknologia berri honek eskaintzen dituen baliabiade guztiak aprobe txatu eta estetika berriak bilatzen ahalegindu naiz. Argazkiotan, batez ere, grisen eskalan argien eta itzalen konbinazioak nabarmentzen saiatu naiz”. Berba hauekin aurkeztu dizkigu Txaro Gutiez argazkilariak orrialde hauetara ekarri ditugun irudiak.

Argazkiak: **Txaro Gutiez**

mgutiez@euskalnet.net / txaro.ojodigital.net







zineeskola

Oskar Fernandez

Istorioak ez dira aldatzen

Zutabetxo honen izenburuak adierazten duen bezala zinemak aldarrikatzen dituen istorioak ez dira aldatu. Mende osoa igaro da zinema sortu zenetik eta ni zinemak hasieratik kontatzen zituen istorio berdinak kontatzen jarraitzen duela esango nuke. Jakina, hau zehaztu behar da. Aldatu ez dena istorioaren barruko egitura eta mamia da. Demagun, film gehienetan egiturak berdin-berdin irauten du: sarrera, korapiloa eta amaiera. Narrazioa garatzeko egitura bera erabiltzen dute, gauzak denboran gertatzen diren moduan adieraziz. Pertsonaien egoerak eta ezaugarriak ere berdinak dira: batetik protagonista dago, gizona, eta beste gauza batzuen artean emakume baten bila dabilena; bestetik, antagonistak oztupoak jarriko dizkio protagonistari bere maitalearengandik ahalik eta urrunen egon dadin. Baina bukaeran bi maitaleak elkartuko dira. Pertsonaiak eta maitasun kontuak alda ditzakegu, baina barruko eskemak oso antzekoak izango dira. Orduan ezer ez baldin bada aldatu, istorio berdinak kontatzen jarraitzen baldin badute, zer da jendea zine aretoetara erakartzeko duena? Zalantzarik gabe filmek hartu duten itxura. Gaur egun ikus efektuak direlakoak izugarriak dira, eta honek eragin handia dauka ikusleengan. "La puesta en escena" deitutakoa ikaragarria da, baita erakargarria ere. Horrexegatik George Lucas Amerikako Estatu Batuetako film zuzendariak aurrera jarrai dezake bere istorio handia eta ikusgarria kontatzen. Galaxietako guda 1977an hasi zen eta orain dela oso denbora gutxi seigarren filma pantailetara eraman da. Milioika eta milioika pertsona joango dira hirugarren atal hau ikustera, zalantzarik gabe. Ondo baino hobeto baitakite begini-nietatik sartuko zaizkien irudiak haien gustukoak izango direla. 4

Luzerako bidea

Erandioko II. Film Laburren Jaialdira 123 film aurkeztu ziren, eskualdekoak ere bai

Erandioko Udaleko Kultura, Gazteria eta Kirol sailak bigarren urtez Film Laburren Jaialdia egin zuen pasadan hilean. Bertara jatorri ezberdinetako 123 lan aurkeztu ziren: Bartzelona, Vigo, Valentzia, Granada, Madril, Sevilla, Berlin... Euskal Herrikoak ere izan ziren, zelan ez: Iruñea, Hondarribia, Irun, Bilbo, Ibarra, Oihartzun, Gasteiz, Donostia... Eta euren artean Uribe Kostatik bertatik heldutako uzta ere ailegatu zen, 10 bat film.

Umirezko eta dokumental generoetako film laburrak ziren denak eta aukeratuak 20tik gora lan eskaini zituzten lau egunetan zehar. Hiru sari nagusi eman zituzten: Umirezko alorrean 1.700 euro, Dokumental alorrean 1.700 euro eta Ikus-entzunezko Eskola bateko lanik onenari 1.000 euro. Horrez gainera, epaimahaiaren

«Umirezko lanik onena Alberto Pardoren *Entaina* izan zen»

aipamen berezia jaso zuen euskal lan batek. Batetik, Umirezko lanik onenari saria Alberto Pardo Bustilloren *Entaina* filmak eskuratu zuen. Bestetik, dokumentalik onena Manuel Gonzalez Ramosen *Manolo Recicla* lana izan zen. Eta Ikus-entzunezko Eskola bateko onena



Asier Mentxaka Martinek Lamiakoko Maskaradari buruzko dokumentala aurkeztu zuen

Madrilgo Zine Institutuko Jaime Goetz Sodupearen *Esto no es una pipa* izan zen. Azkenik, Asier Imazen *Eneko Aritza, Orreagako Guda* lanak aipamen berezia lortu zuen.

Erandioko Udaletik adierazi dutenez, ekimen honi jarraipena emateko asmoa daukate eta aurkeztutako lan kopurua kontuan hartuta arrakastatsutzat jo dute Jaialdia.

Film laburrak lan luzeen aurre-pausuak, luzerako bidearen hasiera ohi dira gehienetan, eta uzta ikusita euskal ekoizpenerako bideak aurrera egiteko aukera ematen du. Ea uztaldia ez dugun bidean galtzen. m

Ez galdu > "Stars war"



George Lucas Ameriketako Estatu Batuetako zine zuzendariak Cannes-eko Nazioarteko Zinemaldian arrakasta handia lortu berri du. Istorio honen azken atala ahalik eta lasterren ikusteko gogo izugarri handia ere piztu du bere jarraitzaileengan. Lucasen seigarren azken lan hau ikaragarria, ikusgarria eta erakargarria dela esan dezakegu. Ikuskizun handia lortu du. Filmean greziar tragedia nabarmentzen da eta emozioz beteriko istorioa garatzen du saga hau ixten duen azken emanaldi honek. Amaiera honetan zuzendari ospetsu honek bere pertsonaien garapen psikologikoan arreta handia jarri du. Argumentoaren garapenean drama, maitasuna eta epika ederto uztarturik daude. Eta jakina, une edo sekuentzia oso hunkigarriak, interesgarriak eta ikusgarriak ondo baino hobeto txertaturik daude.

Blues Jaialdia hilaren 10etik 12ra

Eddy "The Chief" Clearwater, Coco Montoya eta Skip McDonald Algortako Portu Zaharrean



Skip McDonald, Little Axe taldeko burua

Canal Blues Getxoko taldeak emango dio hasiera ekainaren 10ean XVII. Nazioarteko Blues Jaialdiari. Itzal handiko blueslariek osatzen duten egitarauan sartzegatik pozarren daude Canal Bluesekoak eta ohiko kontzertuetako doinu rockeroagoak baino emanaldi blueseroago eskainiko dutela jakinarazi digu laukoteak. Getxoko taldearen ostean, Eddy *The Chief* Clearwater musikari ezaguna igoko da taula gainera. Missisipikoaren country, blues eta rock doinuak agurtuko du Blues Jaialdiak lehenengo eguna. Bigarren gauean, hilak 11, Kaliforniako gitarrojole Coco Montoyaren blues-soul doinuek giroa dute

Portu Zaharra. Azkenengo gauean, zaletuek gozatua hartzeko ardura Little Axe taldearena izango da. Skip McDonald buru daukan Little Axe musika proiektuak erritmo elektronikoak, blues eta dub soinuak batzen ditu. Beraz, Ohioko kantari, gitarra, baxu eta piano-jole ospetsuaren eta bere taldearen estilo berritzaileak amaituko da ekainaren 12an aurtenko Blues Jaialdia. Horrenbestez, aurrean ere bluesaren barruan ematen diren estilo desberdin eta nahasketaren lekuko izango da Portu Zaharreko karpia. Urtero legez, emanaldiak gaueko 21:30ean hasiko dira eta ez da sarrerarik ordaindu behar, kontzertuak musu-truk dira. m

diskoak

I am a bird now
Antony & The Johnsons
Green Ufos



Antonyk ahoa zabaltzen duenean, hotzikara batek harraipatzen du entzulea. Hori ahotsa! Bihotza apurtzeko modukoa. Galaxia honetakoa izango ete da? Irudi androgino bategaz, Londresen jaiotako eta Kalifornian hazitako martetar hau kabaret ilun bateko anfitrioi bikaina izango litzateke. Hain ona da, Lou Reedek eta Rufus Wainwrightek disko honetan parte hartu dutela.

Awake is the new sleep
Ben Lee
New West-Dock



26 urteko australiar hau dagoeneko ez da Sonic Youth eta The Beach Boys taldeei lilurata utzi zien ume miresgarria, baina gurean aurkitzeko dagoen talentua izaten jarraitzen du. Disko honegaz edertasun handiko mundua eraiki du, melodia baikorakaz zein kutsakorakaz. *Catch my disease* eta *Begin* bezalako abestiek *repeat* botoia behin eta berriro sakatzera gonbidatzen dute.

Disko infernu
Gatibu
Onuka



Gernikako talde honek gurean ia ezinezkoa dirudiena lortu zuen *Zoramen* lehenengo diskoagaz: 20.000 ale saltzea. Bigarren honetan, Alex Sardui-ren taldeak ez du arriskatu, eta aurrekoaren bidetik jo du. Abesti batzuetan perkusioek leku handiagoa hartu dute, baina oinarrizko rock gitarroa eta melodikoa izaten jarraitzen du, Gatiburen ezaugarriak mantenduz: lelo paregabeak.

Lehiaketa >

Irabazleak Leioan...



Leioako V. Pop-Rock Lehiaketara 255 talde aurkeztu ziren: 179 pop-rock arloan eta 76 metal atalean. Laurdena edo Euskal Herriko taldeak izan

ziren eta gainontzekoak Bartzelona, Valentzia, Madril, Frantzia eta Argentinatik heldutakoak. Metal saileko azken galbaheeraino Beforce (Getxo), Konter (Leioa) eta Nunnery (Bartzelona) taldeak iritsi ziren eta azken horrek eskuratu zuen saria. Pop-rock eremuan, ostera, 33 D'envit (Valentzia) eta Kepay (Guadalajara) taldeei The Midnigh Travellers (Bartzelona) gailendu zitzaion. Beraz, Bartzelonara joan dira sari nagusiak, alabaina, Getxoko Beforcek eta Kepay taldeak entzuleen saria jaso zuten.

Standard >

Demoko irabazle

Benicasimoko Nazioarteko Jaialdiak musika sortzaile berriei begira antolatzen duen lehiaketa, "Proyecto Demo" delakoa, Standard talde getxoztarrak irabazi du. Adolfo Gonzalez, Juan Escribano, Jens Wolfersdorf, Bruno Zumarraga, Deu Txakartegi eta Javier Letamendiak, taldera batuko den azkenengoa, osatzen dute Standard. Proyecto Demo lehiaketa irabazteak Benicasimoko Jaialdian (abuztua) eta Italiako Soundlabs Jaialdian (uztaila) jotzeko aukera emango die getxoztarrei. Taldea 2002 aldera sortu bazen ere, elkarriketa batean azaldu zuten moduan, Athleticen Standard de Lieja taldeari sartutako gol sortaren ostean erabaki ei zuten taldearen izena.

poemakutunak


Egilea: Lauaxeta, 1935

Kanta ariña

¡Edanak
busti begistaz ezpanak!
Eder-min
betiko moskortu nedin.
Gauza danetan dakusat
barre ta kanten prisea.
¡Ba-yuat
soin gaste onen lorea!

Etzunik
edan daidan neurri-barik.
Oindiño
soin onek mun-miña
diño.
Arinka duaz urtiak
baña pitxerra beti on.
¡Gastiak,
ezpanak legor ez egon!

Moskorra,
gabaren azken-altxorra;
bixitzak
ostuten daustaz jorralak,
baña neure lagun adi.
Gastaro au gaitzekuan,
gal bedi
edontzi baten kolkuan!



etorri
eta
ikusii!

MORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

[liburuak]

Biografien bilduma

Elkarren Biografien Bilduma barruan lan berria kaleratu du Edorta Jimenezek: **Robert Capa**

Elkar argitaletxearen Biografien Bildumaren barruan plazaratu den *Robert Capa* liburuaren prentsako argazkilaritza modernoaren aitzat jotzen denaren bizitza kontatzen du Edorta Jimenezek. Endre Erno Friedmann juduak nazismo garaian izena aldatu egin behar izan zuen, geroztik Robert Capa legez egin zen mundu guztian ezagun. Herri xehearen eta gerraren krudelkeriaren inguruko argazkiek eman diote ospea Capari, eta 1936ko Gerran Euskal Herrian ere ibili zen. Jimenezen liburuak erdi aldean argazki-liburuxka bat dauka irudiak kalitate hobegoan eskaintzeko asmoagaz.

Biografia Bildumaren baitan kaleratzen den 18. liburua da Caparen gainekoa. Jose Antonio Agirren bizitzari buruzko lana izan zen Bildumako lehenengo lana, Aitor Zuzenaren «**Historian leku berezia eduki duten 18 izen handik osatzen dute bilduma**»

berogoiak idatzitakoa (1997), ostean etorri dira esaterako: Mahatma Gandhi (A. Zuberoigoitia), Charles Chaplin (Mikel Asurmendi), Ernesto Che Guevara (A. Z.), Pasionaria (Alberto Barandiaran), Frida Kahlo (Ana Irigoien), Geronimo (Imanol Murua Uribe), Barandiaran (Jon eta Jexux Aizpurua), Chur-



Endre Erno Friedmann edo Robert Capa

chill (Joseba Arruti), Rosa Luxemburg (Lore Agirre), Kennedy (Humberto Unzueta), Iparagirre (Julen Gabiria), Stalin (Joseba Arruti), Leonardo Da Vinci (Fernando Morillo)... Bildumako arduradun editore Xabier Mendi-gurenak aurretatu duenez, hurrengo biografien artean izen batzuk ere badauzkate dagoeneko: Txiki, Urtain, Andy Warhol...

Liburuok argazkiak osatuta daude eta amaieran pertsonajearen bizitzaren zein orduko gertaeren kronologia daukate. Salneurria ez da 10 eurotara heltzen; merke Historian leku berezia izan duten atzerriko eta hemengo jendearen nondik norakoak ezagutzeko. m

liburuak



jat
goizalde landabaso

Jat
Goizalde Landabaso
Elea

Euskadi Irratiko kazetari deustuar honen lehenengo poesia-bilduma honek (*Korte bat, mesedez ironiaz betetako nobelaren ostean*), 80 olerki inguru dakartza, amodioaren gazi-gozaoren inguruan. Zuzenak, biluziak eta oso pertsonalak dira, hiru ataletan banatuta daude, eta maiteminatik mespretxurako bidaia egiten dute.



AUZOAK
URTZI URRUTIKOETXEA

Auzoak
Urtzi Urrutikoetxea
Susar

Joseba Jaka beka lortu ostean, Bilbon oinarritutako ipuinak idatzi ditu Txurdirnagako idazle eta gidoiagile gazte honek, *Berlin (hiriaren sinfonia)* filmaren egitura aintzat hartuta. Pakadaz begiratu die Bilboko auzoei eta hiritarrei egun bateko jarraipena eginez, eguneko lehenengo orduetatik gaueko azken orduetara.

[kirola]

Getxo Saskibaloi Taldea

Aurten ere euskarazko **Saski Getxo kanpusa** antolatuko dute uztailearen 11tik 15era bitartean



Getxo Saskibaloi Taldeko kadeteak Zubilleta ikastetxeko zelaietan

Getxo Saskibaloi Taldea 1977an sortu zen eta sortzetik dauzka emakumezko zein gizonezko taldeak. Gaur egun gizonezkoen aldean 5 taldek dihardute, 60 bat jokalarik (Lehen maila nazionalekoak, Erregional mailakoak, juniorrak, kadeteak eta haurrak); eta emakumezkoan beste horrenbeste (haur mailan izan ezik gizonezkoen maila berdinetan). Nazional mailako taldekoek Faturan entrenatzen eta jokatzeko dute, eta gainontzeko taldeetakoek Andra Mariko kiroldegian eta ikastetxean, Zubilleta ikastetxean eta Fadura institutuan. Horren albotik, zera azaldu digu Carlos Sergiok, Getxo STko Kirol zuzendarietako batek: *“Onena dena apur bat zentralizatuagoa egotea izango litzateke, taldeak batzeko aukera gutxienez edukitzea; hori ona litzateke, batez ere jendeak proiektuagaz bat egin dezan, eta jokalariek elkar ezagutzeko...”*. Getxo ST momentu interesgarri batean dagoela azaldu du Sergiok: *“Orain de-*

la 3 urtera arte Taldeak beheraldi garrantzitsua bizi zuen, orduan jende berri asko sartu zen, Cristina Cruz emakumezkoen alorrean eta ni gizonezkoen aldera, eta denon artean aurrena egiteko bultzaka gabiltza. Trantsizio garaia bizi dugu, beheko mailetan prestatzen dabilzanak goiko taldera noiz helduko zain gaude, pastela igotzen dabil, baina oraindik ez dago prest, bi urte barru edo egon liteke”.

Euskarazko saskibaloi kanpusa

Bigarren urtez jarraian, Getxo STk Saski Getxo saskibaloia gainera euskarazko kanpusa antolatuko du. 7-16 urte bitartekoei begira prestatu dute, eta izena emateko epea dau-den 120 lekuak betetzen direnean itxiko da, iaz 80 lagunek parte hartu zuten. 190 euroko prezioa dauka kanpusak eta 09:00-18:00 ordutegian egingo da. Aurten entrenatzaileentzako ikastaroak ere emango dituzte. m

Harremanetarako: 610 326 470

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol
moda



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIK? ELEKTROTRESNEN? KONPON

Lacofris S.L. SERVICIO

MARKA GUZTIAK
24 ORDUTAN ERANTZUNA
3 HILABETEKO GARANTIA
25 URTEZ ZURE ZERBITZUA

94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

T: 430 53
HIRURAK

Sarrikobaso 15

Ana Lara > dantza irakaslea

“Balet emusiarrek bete egiten dituzte aretoak, baina emusiarrek ez badira...”



Ana Lara bere akademian

Ana Lara bilbotarrak hogei urte daroaz dantza klasikoa -baleta, gurago baduzue- irakasten, Algortan daukan akademian. Gainera, bestelako dantza mota batzuk irakasten duten laguntzaileak ere badauzka: dantza modernoa, Karibekoa, hip-hop... Gustuko du irakastea, eta horregatik oso gazte hasi zen horretan: 23 urte gaz. Eskola biren artean elkartu gara beragaz, eta dantza klasikoaren gaineko berriketaldi hau eduki dugu.

—Zein da zure ikasleen profila? Hau da, zerk bultzatzen ditu hona etortzera?
—Txikiak direnean, euren amak. Holan hasten dira. Eta hiru urtekoak ere uzten dizkidate. Haurtzaindegia, azken batean. Baina jolasak baino ez ditugu egiten, adin horregaz ezin dute eta ezer ikasi. Ezin diote erritmoari jarraitu, ez dute ulertzen. Dantza klasikoak disziplina behar du, eta adin horretan...
—Zenbat urte gaz has daitezke orduan benetan zeozer ikasten?
—Zazpi edo zortzigaz, klasikoa behintzat.

—Gatxa da dantza klasikoa irakastea? Beste modu batera esanda: edonork ikas dezake?
—Hara, guztiek ezin dute maila ona lortu. Klasikoak hainbat gauza eskatzen du: gorpuzkera jakina edukitea, mehea izatea, beso, hanka, eta lepo luzeak edukitea, elastikotasun handia... Hori eduki egin behar da, eta ez daukanak zailtasun gehiago edukiko ditu hasieratik. Dena dela, lan eginez edonork hobetu dezake bere maila.
—Zergatik uxatzen ditu baletak mutilak?
—Begara, nik seme bat daukat. Hau egiten

hasi zen eta orain errugbian dabil. Adin bate-tik aurrera, balletan dabilen mutila “maritxua” da. Beti izan da holan.

—Balet profesionalen ere bai?

—Bitxia da, baina antzina gizonak bakarrik dantza zezaketen baleta. Andrazkoena ere eurek egiten zuten, moztortuta. Gero, andrak hasi zirenean, haiek hartu zuten protagonismo gehien, eta gizonak euskarritzat geratu ziren ia bakarrik. Horregatik izango da beharbada, baina egia da ballet egiten duen gizona maritxutzat jotzen dela.

«Adin batetik aurrera, baletan dabilen mutila *maritxua* da. Beti izan da holan»

—Dantza klasikoa, ez da beti gauza bera?
—Egia da erreperitorio bat daukala, eta horixe baino ez. Baina asko hobetu da teknika aldetik, indar aldetik... Gero eta hobeto egitea eskatzen da, eta horretantxe eduki du eboluzioa. Edozelan, niri ez zait aspergarria iruditzen. Onartzen dut, hala ere, gozatzeko ulertu egin behar dela. Bestetik, azken boladan asko zabaldu da baleta; dantza mota asko dago, eta gehiago nahasten dira elkarre-gaz. Jendeak orain break dancea, hip-hop eta abar ditu begiko, jostagarriagoak direla-ko, baina uste dut klasikoa ere askoren gus-tuko dela.

—Jostagarria dinozu... Adjetibo hori erabi-liko zenuke balletarako?

—Nik neuk bai, baina gustuko izan ezean...
—Eta hemen badugu gustuko, badagoz ikusleak?

—Gero eta gutxiago. Hara, balet errusiarrek aretoak betetzen dituzte, baina errusiarrek ez badira... Hemen bageneukan Euskadiko Baleta, maila handikoa nire ustez, baina di-ru-kontuengatik desagertu zen. Badago ikuslerik, dena den. m

Esakere > “Arranoa hegaz baño txepetxa eskuan hoba”



Gaur egun urruneko gauza asko ikusten eta ikisten doguz komunikabiden bitartez eta interneten bitartez, eta erraz sartuten daku burun morroi honek edo harek dekona guk bere euki behar dogule. Ondo dator bizitzen aurrera eta gora aitute, eta norberak dekona baiño gehiago billetute, baia batzuten norberan eskutera aitu eta eskun dekunek zenbet balio dau konturatute bere ona da, urrun eta hegaz dabiltezen gauzan atzetik itsu-itsu ibilli barik.

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran “Euskalerraren Yakintza” behar handin topako dozue.

Gure **berbakere60**

ZELAN ESAN

Harritasune eta hoztasune erakusteko

Testua: **Xabi Bilbao**

Harritasune erakusteko modu batzuk

- Bai?
- Aiko! (áiko)
- Hára!
- Kóntxo!
- Ze gauza!
- Zelan ba?
- Itzela da hori!
- Hori akabu da!
- Hau da ba!
- Kéba! Eleite(ke) ixen!
- Kóntu íxu (egizu)!
- Ezin dot siñestu!
- Ezta íxengo égi!
- Nok esango leuke!
- Ezu (ézu) esan! (ez egizu esan)

Adibidek

—**Aiko!** Arin zatoze parrandatik: goxe-ko seirek baño ez tire!
—**Andoni** topa eziñik ibil gara eta **hára** non agertu dan akabun!
—**Ate** zabaldu ta **kóntxo!** Han agertu direz laurek góitit behera bustíte.
—**Oiñ** édateko ure bere erosi iñ ber supermerkadun, **kóntu íxu** zélan kan-bia dan bizimodu!

—Zero ta bost irébazi daule Atletik?
Kéba, éleite ixen hori!
—Morrosko hori da igez ikusi gendun umetxu? **Nok ésango leuke!**
—**Andoni** gure kántaten txapelketa baten?
Ezu esan! Ezta íxengo égi!
—**Ume** hori **akabu da!** Elei iñok arteztul!

Hoztasune, indiferentzi erakusteko modu batzuk

- Hori baiño ezta?
- A ze misterio!
- A ze iñusentekeri!
- Ezta hainbesterako!
- Niri bardin daust!

Adibidek

—**Lau** sagu topa dozuzela gelan? **Bo, hori baño ezta ixen probleme?**
—**Eta** aparatu horrek diñotzu non zau-zen? **Aze misterio!** Hori nipere diñot-zut: leku txarren gauz!
—**Turroi** bet osorik yan daule? **Ezta hainbesterako,** nik ikusi dot nónor bi bere yaten!
—**Udaltzañek** datozela gu hemétik bótatzen? **Niri bardin daust!** Datózela gura dáudenen!

I
I aki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

Arasa

Sukalde eta Komunitarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91


Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Vichyssoise

Gainean ditugun temperatura beroei aurre egiteko plater hotz bat beti izaten da lagungarria. Nik *vichyssoisea* proposatzen dizuet. Hasteko ipini sutan gurina eta oliba olio apur bat. Ondo txikitutako porrua gehitu gero eta bigundu arte su ahulean eduki. Ondoren patata bat dadotan zatituta, litro erdi esne eta beste horrenbeste okela salda bota (ez badaukagu, ura eta starluxa erabili) eta irakin arte eduki sutan. Gatza eta pipermina gustura bota. Guztia eginda dagoenean txinotik eta irabia-gailutik pasatu salda fina lortu arte. Kitto! Plater honen aldaerak ere oso erraz egin daitezke patata erabili barik, esaterako, kalabaza edota erremolatxa erabiliz. ^m

osagaiak (1au lagunentzat)

- dozena bat porru • patata bat • litro erdi esne • litro erdi salda • gatza • pipermin zuria •



itsaso arana / jolastokikoa

Txakolina

Mendeetan zehar Bizkaia mahasti handia izan da. Adibidez, Portugaleteko sortze aktan honako pribilegioa eman zion Espaininako Juan I erregeak herriari: kanpoko itsasontziek ezin zuten herrian beste leku batzuetako ardorik deskargatu, behintzat herrian bertan egindako horrenbeste txakolin ontziratzan ez bazuten.

Bizkaiko Txakolina jatorrizko izendapena Bakio eta Lekeitioko kosta-mahastiek hartzen dute. Badira Enkarterrietan ere mahastiak, Balmasedan, Güeñesen, Galdamesen, Zallan eta batzuk Orduña aldean. Bodegak aipatu ditugun inguru hauetan daude.

Batez ere bertokoak diren mahats mota bi erabiltzen dira txakolina egiteko: hodarrabi zuria eta hondarrabi beltza. Oso mahats usaintsuak dira biak. *Folle blanche* mahats mota ere onartzen du jatorri izendapen honetaz arduratzen den Kontseiluak. Mahats-biltzea udazkenaren hasieran egiten da, azukrearen eta garratzasunaren arteko oreka egokia den uanean.

Ardao hauei dagokienez, ezagunenak zuriak dira. Ardao arinak dira, sikuak eta edaten oso errazak. Graduazioa 9,5 eta 11,5 artekoa edukitzen dute. Txakolin gorria ez da horrenbeste egiten eta ahoan ikutu garratztoa sortzen du; graduazioz zurien parekoa izaten da. Eta azkenik, txakolin baltzak geratzen zaizkigu, hauek dira ezezagunenak eta oso gutxi ekoizten dira. Hauetan bai, nabaria da garratzasuna.

Ardao honen ekoizpenaren parte txiki bat atzerrira saltzen da, beste bat Madril eta Bartzelonan banatzen da, baina gehiena hementxe, Euskal Herrian bertan, saltzen da. ^m

La Marmita jatetxea

Era askotako menuak Erromon



Jose Mari Larrinaga gerentea (ezkerrean), Miriam Angulo eta Diego Alonso sukaldariak

Jose Mari Larrinaga erromoztarra eta bikotekidea ditugu 2003ko azaroaren 4an inauguratu zen La Marmitako kudeatzaileak eta bazkideak. Lehenengo kantina mariachia izan zen, eta ondoren bost urtez zarratuta egon zen lonja, "denek galdetzen zuten leku honetaz, eta denek taberna zabaldu gura zuten bertan. Inor ez zen jatetxea paratzen ausartzen". Izan ere, Larrinagak uste du Erromon eta Areetan jatetxeren eskasia dagoela, "horregatik ireki genuen hauxe, Trokazulo kafetegia geneukan arren".

La Marmita eroso eta argitsua da, sukaldia bezeroen begi-bistan dago eta ez dauka barrarik, bazkariak eta afariak baino ez dituztelako ematen (13:00etatik 16:00ak arte eta 20:00etatik 00:00ak arte egoten da zabalik). Jantokian 54 mahaikide sar

daitezke. Eskaintzen duten otordu mota ezberdina ei da: "Garrantzia ematen diogu aurkezpenari, ikusmenagaz ere jaten da-eta. Menuak askotarikoak dira, eta batez ere eguneko asko aldatzen dugu. Platerak ez ohi dira errepikatzen egun askotan".

Etxeko berezitasunak ehiza (ostruka, oreina eta basurdea) eta arrainak (lupia, itsas-zapoa eta erreboiloa, besteak beste) dira. "Udari begira karta aldatuko dugu: zezen buztana, txerri-hankak faisaiagaz... sartuko ditugu. Eta kanguruagaz probatzen gabiltza". Eguneko menuak 8 euro balio du; bereziak, 12. ^m

La Marmita jatetxea
Amalloa 7 - Erromo
T. 94 602 06 13

gOZOLABEA
galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

OSABIDE HORTZ?KLINIKA
Arantza Etxebarria

- ¥ Odontologia oro korra
- ¥ Ortodontzia
- ¥ Periodontzia

Bidebarri 27, behea es
ALGORTA
94 94 430 76 96

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

uk

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua
48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezi, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

ETXEKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON

Lacofris.s.L. SERVITEC

- ¥ MARKA GUZTIAK
- ¥ 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- ¥ 3 HILABETEKO GARANTIA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

Taberna Berr

Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf.: 944 306 493



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA




VIEJO
kopak eta giro jatorra
Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak
Andres Larrazabal, 11 AREETA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94


GOIZEAN
Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Zure publizitatea hemen
94 491 13 37


[horoskopoa]

URA
t 

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Ez dakit zelan, baina edonondik indarra lortu beharko duzu. Datozen egunetan batera eta bestera, gelditu barik ibiliko zara-eta. Aste-akabu lasaia presta ezazu, mendira ibilalditoxa egitea ez litzateke ideia txarra izango.

AITZURRA
t 

(Martxoak 21 apirilak 19)
Munduagaz haserretzeak ez du ezertarako balio. Besteek ez dituela ezer egiten diozu beti: "gertatzen dabilzanak ikusita zelan egon litezke besoak gurutzatuta ezer ere egin barik?" Alabaina, eta zuk zer egiten duzu?

GARIA
t 


(Ekainak 19 uztailak 18)
Zure inguruan harresi bat eraiki duzu. Erasorik ez jasateko gotorleku horren babesean pozik zaude, baina hesiak ez du bizipen eta lagun berririk ezagutzeko aukerarik ematen. Hainbestelako babes hori ez al da aspergarria?

META
t 


(Irailak 17 urriak 16)
Heldu da ordua. Laster ezagutuko duzu zure barruko sua piztuko duen sorgina edo basajauna. Begi zeharka beginurako dizu, eta begirada hori momentu horretan harrapatzen ez baduzu, zureak egin du. Adi egon!

OTSOA
t 


(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Musika topera daroazu beti. Besteek diotena ez entzuteko? Erdi gor lotuko zara azkenean. Egia esan, zure ahotsaren tonua ere besteena baino askoz ozenagoa da. Besteek esateko daukatena entzun beharko zenuke.

HOSTOA
t 


(Apirilak 20 maiatzak 19)
Gogoko lekuan aldaparik ez. Ezta? Sasoi onak dira hauek zuretzako; hala ere, txarrak helduko direnerako kontuan hartu hurrengoak: mendiaren edertasuna tontor gainetik bakarrik antzeman daitekeela eta horretarako aldapa igo behar dela.

LASTOA
t 


(Uztailak 19 abuztuak 17)
Bihotzak diotsu maite duzula, buruak, ostera, ezinezkoa dela. Bien erdi bidean dago ahoa, bertatik aterako da egia. Esaiozu bihotzak dakiena, esaiozu buruak sentitzen duena. Eta horrela ez duzu sekula galduko.

HAZIA
t 


(Urriak 17 azaroak 15)
Sorgindu gura zaitu. Izan dezakezuna daukazuna baino hobea dela sinestaz gura dizu. Etzazu bere edabe magikotik edan. Ez al zara konturatu bere onerako bakarrik diharduela? Bere alboan ez zara zoriontsuago izango.

ADARRA
t 


(Otsailak 19 martxoak 20)
Sentitzen duzun hori maitasuna denetz? Bere alboan eman gura zenituzke 1001 gau? Beragaz batera igarri gura zenituzke bizitza eta munduaren sekretuak? Beragaz banatu gura zenituzke plazeraren gozokiak? Orduan, badakizu erantzuna.

EGUZKIA
t 

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zoriona ate joka izango bazenu ere, ez zenuke txirrinaren soinua entzungo. "Zein zoritxarrekoa naizen, zergatik ezin dut nik balako hura eduki..."; hala zabilza beti. Zoritxarrean bizitzea gogoko duzula pentsatuko dugu, benetan.

IRATZEA
t 

(Abuztuak 18 irailak 16)
"Inoena ikusteko argitsu, berea ikusteko itisu". Zein erraza den besteen akatsak antzematea, zein erraza den besteentzako gomendio edota aholkuak ematea Lehenengo zure akatsak ikusi beharko zenituzke, hori egiteko premia handia daukazu-eta.

NEGUA
t 


(Azaroak 16 abenduak 20)
Hobe duzu aurreztutakoak ondo jagon, dagoeneko denak xahutu ez badituzu behintzat. Gogoratzen al duzu ez zarela aberats jaio? Ez, ez zara aberatsa eta ezin duzu Bill Gates legez bizi! Onar ezazu behingoz!



mungia
OKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".
Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



Play Help


0 10 0 13

	1		1		
*	2		1	*	
*	3		1	1	1
	*	1			
		1	1	1	1
			*	1	
		*	*		2 2 2
*				*	*

Keko

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATU



Ezker eskuin

1. Industriak eraldatzen dituen gaiak. 2. Jausiak. Letra grekoa. 3. Hartuemanak. 4. Euskal Herri hegoaldeko ibaia. Estimatu handiko zur. 5. Nagoela. Zah., zakur. 6. Nork pluralaren araberako atzizkia. ... Robles, Lapurdiko txiste-kontalaria. Bat. 7. Enea. Bizkaieraz, pikeak. 8. Gauza. Saudi Arabiako hiriburua. Lehen bokala. 9. Zero. Gipuzkeraz, gara. Ardi, hitz elkarketan. 10. Arratseko otordu. Landu, apaindu.

Goitik behera

1. Lehenbizikoa. 2. Ebazpean, deliberoa. Euskal alfabetoko letra madarikatua. 3. Horkoari. Letoniako hiriburua. 4. Iparraidean, esaiozue. Erbioaren sinbolo kimikoa. 5. Ba..., haiei banu. Edateko gogo. 6. Animalia konkordun. Kasik. 7. Kalitua, hila. Oxigenoa. 8. Iodoa. Nafarroako ibilgailuetan. Niri, zuen. 9. Nafarroako herria. Bokala. Radona. Kokoriko jarri.

Soluzioak



asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- Lemoako semea
- Danon ahotan ibili izan da azken boladan
- Ogibidea politika izan du orain dela gutxi arte

> Aurrekoaren erantzuna: Carod Rovira
> Irabazlea: **Garbiñe Aurrekoetxea**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48992 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Gartxot komikia

www.argia.com



Artatza-Pinueta ikastetxea, 1981

Zilarrezko ezteiak ospatzen dabilta Leioan Artatza-Pinueta ikastetxeko lagunak. Goiko argazkia orain dela 25 urtekoa da eta ikasturte amaierako jaietan ateratzen zuten. Bertan gurasoak eta irakasleak nahasturik azaltzen dira. Esan behar dugu argazkian agertzen diren guztietatik pertsona bakarrak segitzen duela ikastetxean, Rosa Martin, gaur egun eskola honetako zuzendaria dena. A eremuan eta 700 ikaslerekin hasi zuen bere ibilbidea Artatza-Pinuetak, baina hastapenetik euskararen alde ibili da beti. Ikastetxea B eredutik pasa ostean gaur egun D eredia baino ez du eskaintzen eta 80 haur inguru dabilta han hezten. Zorionak eta urte askotarako! m

Goian: Eguzkiñe Talavera, Julia Martin, Alberto Duran, Enrique Elejalde, Mertxe Caballero, Jose Luis Onaindia, Maria Luisa Aldekoa, Lola Diaz, Carmen Rubio, Daniel Alvarez.

Erdiko lerroan: Koro Artola, M^a Asun Astobieta, Begoña Beaskoetxea, Begoña Gutierrez, Cristina Larrinaga, Rosa Martin, Txaro Gomez, Jaime San Sebastian.

Makurtuta: Lucia Oyarbide, Arantza San Cristobal, Mertxe Hoyas.

*Atal honetan ateratzeko argazkirik badaukazu, ipini gurekin harremanetan: 94 491 13 37



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

FRANCIS DIEZ > Doctor Deseo taldeko abeslaria

“Ez dut *sinetsi* aditza jokatzeko”

Testua: **Jon Urresti** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini ezazu zeure burua berba bitan. Defini ezina.

Zein animaliaz zatoz bat?

Arranoagaz. Izugarri gustatzen zaizkit nire ondotik pasatzen direnean mendian. Hain arinak dirudite.

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?

Rainer Maria Rilkek idatzi zuen *Cartas a un joven poeta* izenekoak. Berezia da: ondo bizi izan den pertsona baten helduaroak zer ekar dezakeen.

Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Blade Runner eta *Léolo*.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Nire gurasoen belaunaldia. Argi indarririk ez zeukan herri batetik irten, Bilbo bezalako hiri batera etorri, eta bizimodua ateratzen eta aurrera egiten jakin izan zuten.

Zure jakirik gogokoena.

Arrautza frijituak patatakaz eta Gernikako piper berdeakaz.

Aitor dezakezun bizio bat.

Sexua zentzu zabalean bizio interesgarria iruditzen zait.

Oporretara joateko lekurik aproposena.

Mendiak. Eskalada egiten dut 14 urte neuzkanetik, eta ahal dudan guztietan ihes egiten dut. Norvegiako fiordoetan eta Italiako Dolomitetan egonda nago. Gauaren eta parrandaren kontrastea da. Mundu biak gustuko ditut.

Zer janzten duzu lo egiteko?

Dena kentzen dut. Gainera, leihoa irekita lo egin ohi dut.

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?

Euskal gatazka bideratzen hasi dela behingoz, eta alderdi guztiak jesarri direla berba egiteko. Horrek leku askotan min handia saihestuko luke.

Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?

Ez dut horretan pentsatzen, ezta sinesten ere. Are gehiago, “sinetsi” aditza ez dut jokatzeko. Hauxe da egokitu zaidan karta-sorta, eta horregaz nabil jokoan.

Zure azken erokeria. Egitear dago beti. ○

LABURREAN — Irribarreak aurpegi osoa betetzen dio, eta espiritu isekaria dauka. Giroa berotzea atsegin du, eta kontzertuetan soberan lortzen du hori. Doctor Deseo Euskal Herriko talderik maitatuena ei da, La Polla Recordsegaz batera, baina bere abeslariak eta sortzaile-etako batek bestelako iritzia dauka: “*Ez dakit maitatuena garen, baina aspergarrinak garela, ziur*”. Francis Diezek (Bilbo, 1958) bere pasioak, sentimenduak eta emozioak askatzen ditu abestietan, ekaitz bortitza bezala. Moda guztiak gaintuz, taldea 20 urte betetzeko bidean dago (1987az geroztik zortzi disko kaleratu ditu), eta oraindik antzokiak eta aretoak betetzeko gai da. Zeozer badauka Doctor Deseok horrenbeste jarraitzaile leial biltzeko: rocka, popa, poesia, kalea, gaua, ezpainetako margoa... batek daki. *La chica del batzoki*, *Corazón de tango*, *Carita de lluvia* edo *Abrázame* bezalako kanta ederrak idazteaz gain, Francis benetan ikusgarria da zuzenean: dena ematen du barrua hustu arte. Ahaztezina. Azkenaldian lanpetuta dabil, beharrak uzten dioenean (okina dugu), Arriaga Antzokian urte hasieran zuzenean grabatutako abestiak eta irudiak nahasten eta aukeratzen dabil. CD+DVD hori irailaren amaieran ipiniko dute salgai.

UDAKO IKASTAROAK / CURSOS DE VERANO

getxoko udal euskaltegia / euskaltegi municipal de getxo

Lope de Vega, 12 · 48930 - ROMO
Tfnoak: 94 464 62 99 / 94 464 65 02
e-mail: euskaltegi@getxo.net

HABEren dirulaguntzaz

UZTAILEAN MAILA GUZTIAK 1etik 29ra
8:00etatik 13:30era

MATRIKULAZIOA EKAINAREN 1etik 24ra

IRAILAREN 2tik 29ra EGA
8:00etatik 13:30era

MATRIKULAZIOA UZTAILAREN 1etik 15era

IRAILEAN ERE BAI

JULIO de 8:00 a 13:30 TODOS LOS NIVELES · SEPTIEMBRE de 8:00 a 13:30 EGA
MATRICULACIÓN: 1 al 24 de JUNIO · MATRICULACIÓN: 1 al 15 de Julio

Getxo
KULTUR ETXEA
EUSKALTEGIA